

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko ekainaren 20a / 634. zenbakia



SANJUANAK03

*Arrasateko Udalbatzak
San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizue
arrasatear guztioi*



ARRASATEKO UDALA

KALEINKESTA/ Jaixek, egunez ala gabez?



AMAIA DUQUE
Ikasle

Gabez gurago. San Juanak ez dittut sekula be Mondraguen zelebrau, baiñe jai-xetan, jeneralien, gabez giro polittague egoten da. Egunez be urteten dot, baiñe gurago dot gabeko girue.



MAR CARMONA
Langillie

Gaba gehixago gustetan jat, baiñe oin umiek dauketenez, jaixek egunez bizi biherdittut. Hori bai, gabien etxien geraketan garenok txarto pasetan dogu, zarata haundixe egoten da-eta.



FRANCISCO JAVIER ARMENDIA
Langillie

Nik neuk gurago dot gaba, baiñe umiek dauketenez, ba... Egunez be ondo pasetako aukerak egoten die, baiñe lagunek gabaz urteten daue; orduen egoten da giro polittiena.



AINHOA GOROSTIDI
Langillie

Egixe esan, ez naz hamengue, eta Mondragueko San Juanak ezaguketan ez dittutan arren, gaba esango dot. Gabaz giro berezixe egoten da. Aurten badauket jaixetara etorteko asmue.



IGONE SÁENZ
Langillie

Gabien egoten dan girue gehixago gustetan jat, baiñe egunez be edarto pasetan dot. Egunez egoten dien herri probak eta holakue ikustie gustetan jat. Baiñe gabez giro hobie egoten da.



JUAN JOSE PEREA
Langillie

Gabez giro polittague egoten da. Jente gehixago ibiltten da kalien, eta jentie animaute egoten da, egunez baiño gehixago. Neure ustez gabetan giro polittague egoten da jaijetan.

KONTUAN HARTZEKOAK

OHARRAK

AZOKAKO SALTOKIAK

Azokan hutsik dauden saltokiak hartzeko eskaintzak aurkezteko epea erabakita dago: datorren uztailaren 11 baino lehen.

UDAKO KIROL KANPAINA

Udako Kirol Kanpaina ekainaren 30ean hasiko da eta uztailaren 24an bukatu. Txanda bi izango ditu: uztailaren 11ra arte eta uztailaren 14tik 24ra. Hala, arku tiroketa, natura jarduerak, skate-a, eskupilota, erretiratuendako gimnasia, patinajea... egin ahal izango dira; hori guztiori adinaren arabera sailkatuta.

'BIBLIOPORRAK'

Arrasateko liburutegiak, inguruko beste liburutegi batzuekin batera, liburu gomendagarrien zerrenda atera du. Zero urtetik aurrera adinaren arabera banatu dituzte liburuak. Eta euskarazko zein gaztelaniazko liburuak gomendatzen dituzte. Jakina, hori guztiori oporrei begira atera dute.

AEK-REN OHARRA

San Juan egunean, AEK-k material berria jarriko du salgai Herriko Plazan, 18:00etatik 21:00etara. Dragoi Janerako txartelak ere egongo dira salgai.

AED-RENAGENDA

DRAGOI JANA

Urteroko ohiturari eutsiz, San Juan egunean, martitzenean, Dragoi Jana egingo dute Herriko Plazan. Dragoi txuleta goxo-goxoak dastatzeaz gainera, zenbait ikuskizun ere egongo dira. Hortaz, eskuratu txartelak ahal den lasterren AEDn, AEKn edo Monte eta Iturriotz tabernetan. Prezioa: 10 euro.


BERTSO-POTEOA

Ekainaren 24an, martitzenean, AEDko Bertsolaritza Sailak bertso-poteoa antolatu du. 19:30ean hasiko da eta Berto Eskolako partaideak eta herriko trikitilariak ibiliko dira.

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 20	RUIZ, Maala 31. 943 79 14 09
ZAPATUA, 21	ESPAÑOL, Araba etorb. 17 943 79 18 65
DOMEKA, 22	AZKOAGA, Ferrerías 1. 943 79 15 15
ASTELEHENA, 23	AZKOAGA, Iturriotz..... 943 79 79 99
MARTITZENA, 24	CORCUERA, M. Aranbarri 1. 943 79 22 26
EGUAZTENA, 25	IRIZAR, Erguin 11. 943 79 12 39
EGUENA, 26	AMEZUA, Santa Marina 32 ... 943 79 09 74
EGUBAKOITZA, 27	ZABALA, Zarugalde 42. 943 77 16 30

ALKATEARENAGURRA/ Inazio Lakuntza



Kaixo, arrasatearrok. Zuengana jotzeko lehenengo aukerara honetan, alkate izendatu berri legez, nigan jarritako konfiantza eskertu nahi nizueke guztioi. Zuen uste onak egiten saiatuko naiz.

Egoera nahasi honetan, uste dut gure apustua "sinistu gure hirian" proiektuak merezi duela, eta jaietan, alai eta gogoz, murgiltzera gonbidatzen zaituztet. Pentsatu nahi nuke, aurtengo San Juanetan, gugandik urrun daudenei ere iritsiko zaiela gozamen distira hau.

San Juan suak erre ditzala asmo txar guztiak eta jai ederrak izan ditzagun, ohitura jatorrei eutsiz.

Ondo pasau.
Gora, San Juan.

Inazio Lakuntza. Arrasateko alkatea

ETABARRUAN...

SAN JUAN JAIK 2003

Alkatearen agurra	/3
Egitaraua	/5-6
Txutxumutxuak	/8
Umeak	/11
'Skate' jaia	/12
Kirolak	/13-15
Kale giroa	/16
Benito Lertxundi	/19
Rock jaialdia	/20
Beste egitarauak	/21
Arrasate Musikal	/22
Mariachiak	/27
Txosnen gunea	/28
Errementari	
Dantzak	/29
Koadrilak	/30
Euskal jaia	/32
Irudi zaharrak	/35
Zaharrak	/36
Danborrada	/38
Irratia	/41
Telebista	/43
Txirritola	/44-45
Irudiak	/46



Arrasate
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arrasateko Udala

Aramaioko Udala

POLITIKA/ Inazio Lakuntza da Arrasateko alkate berria

Haserre handia sumatu zen, osoko bilkuren aretoan, Lakuntza izendatzeko batzarrean

UBANE MADERA

Izugarrizko zaraten eta deiadarraren artean izendatu zuten Inazio Lakuntza Arrasateko alkate. Bigarren itzulian lortu zuen kargua, hauteskudetako zerrendaburu botatuena izan delako. Gainerako zinegotzi guztiek, Aralarko batek izan ezik, hartu zituzten karguak.

Bederatzi boto eskuratu zituen Lakuntzak alkate izateko, EAJ-EA koalizioako kideen botoak, hain justu; Blanca Roncal sozialistak zazpi boto jaso zituen (PSE-EEren bostak eta PPren biak); eta Joseba Ugaldek hiru boto, alderdikideenak, hain zuzen ere. Aralarrek, berriz, zuri bozkatu zuen. Modu horretan, lehenengo itzulian barik bigarrenean izendatu zuten alkate Inazio Lakuntza.

TENTSIO GIROA NAGUSI

Ordu erdi eskas iraun zuen batzarra. Baina oso ordu erdi gogorra eta desatsegina izan zen. Bilkuren aretoa jendez lepo zegoen batzarra hasi baino ordubete lehenago; are gehiago, zenbait herritarrek bertantxe eman zuten bezperako gaua. Herritarren artean, Xabier Zubizarreta eta haren taldeko zenbait kide ere bazeuden.

Hala, udaltzain eta bizkartzain mordoaren babespean sartu ziren zinegotzi berriak aretora, atzeko atetik. Haiek sartu eta berehala hasi zen iskanbila: *Lapurretarik*



Herritarrez gainezka egon zen osoko bilkuren aretoa; Xabier Zubizarreta ere egon zen.

ez, Ez gaituzte isilduko eta antzerako oihuak izan ziren nagusi. Eskuetan protestarako kartelak zituzten herritarrek, eta *Putxerazorik ez, Iruzurrik ez, PNV-EA-IU lapurrak* eta horrelakoak irakur zitezkeen. Eta tartean, Xabier Zubizarreta alkate ohia hitza eskatzen, etengabe. Baina ez zioten eman.

Adin-mahaia eratu zuten zinegotzi gazteenak eta zaharrenak, Ander Rodríguezek eta Luis Etxeberriarteunek, eta horren ostean, banan-banan zinegotziek euren karguak hartu zituzten. Denek, Aralarko bigarrenak -Felix Hernández- izan ezik. Hutsik utzi zuten leku hura, Herri Anitza pla-

taformak izan duen bazterketa salatze.

Gero, alkate berria izendatzeko botazioa egin zuten, eta lehen esandako moduan, bigarren itzulian lortu zuen Lakuntzak alkate izendapena. EAJ-EAko zinegotzian txaloen artean gertatu zen hori. Gero, batzarra amaitutzat

eman zuen idazkariak. Aretoan zeuden herritarrek Herri Anitzaren hauteskudetako boto-txartelak bota zituzten aretoan. Gero, manifestazioa egin zuten.

LAKUNTZA ETA ZUBIZARRETA

Inazio Lakuntzak zera adierazi zigun batzarren ostean: "Bihotz-bihotzean hunkituta nago; pozik, harro, baina batez ere hunkituta". Eta, horrekin batera, honakoa gaineratu zuen: "Buruari galdera sorta sortzen zait; adibidez, non sartu naizen". Edozelan ere, aurrera begira beste modu baten ikusten du egoera Inazio Lakuntzak: "Astelehenetik aurrera hasiko naiz etortzen, eta beste gauza bat ikusiko dut. Gaurkoa tristeza izan da".

Xabier Zubizarretak, berriz, honakoa adierazi zigun: "Momentua da euskaldunok eta ezker abertzalekoek ere gure eskubideak defendituz eta batez ere gauzatuz herriaren gehiengo bilatzeko (...). Momentua da hausnarketa pausatuta eta sakona egiteko, bide horiek zeintzuk diren hautatzeko eta gehiengo politiko hori gurea izan dadin lortzeko". Gaineratu zuen ziur dagoela helburuok lortzeko formulak aurkituko dituztela eta gertu agertu zen gainerako alderdiekin akordioaren bat egiteko, baldin eta euren eskubideak errespetatzeko ahalegin guztia egiten badute. Aralarkoek zuzen jokatu dutela esan zuen, eta salatu zuen gainerakoetako inor ez dela eurenkin harremanetan jarri.

Hemen
GARBIKETAK

**Garbiketetan
profesionalak
gara**

943 71 48 45

607 94 89 84

www.hemen-garbiketak.com

Gora San Juanak!

EGITARAUA

JAIETAKO EGITARAUUA

Egubakoitza 20

19:00 Jose Letona plazan Arrasate Musikaleko Big Band-en KONTZERTUA.
19:30 Txosnagunean ANTZERKI saioa.

Zapatua 21

11:00 Uarkape Udal Pilotalekuan Koadrilen Arteko Pilota Txapelketako finalerdiak. Zaldibarren, egunez, Arraska taldearen *Patxi Matxin* JAIA: skate-a, grafitiak eta musika.
16:00 Uarkape Udal Pilotalekuan San Juan Pilota Txapelketako finalak.
22:00 Monterron Parkean ROCK KONTZERTUA: THE JUKE BOX, BOOGIE PUNKERS, SEÑOR NO eta SEX MUSEUM.

Domeka 22

10:30 Nafarroa etorbidean elkartuko dira

haur dantzarien taldeak.

11:45 Kalean zehar dantzari taldeen KALEJIRAK eta DANTZAK.
12:00etan Zaldibar pilotalekuan ARKU TIROKETA LEHIAKETA. Arku tiroketa praktikatzeko aukera egongo da.
17:00 Herriko Plazan dantza talde guztien JARDUNA eta AGURRA. Lore Gazteak eta Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeek antolatua. Gero, DANTZALDIA.

Astelehena 23

12:00 Herriko Plazan TXUPINAZOA koadrilak elkartzeko.
15:00 Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.
16:00 Herriko Plazan ETXAFUEGOAK eta BONBA JAPONIARRAK.
17:00 Koadrilak Maalan elkartuko dira eta MAKALA Herriko Plazaraino eroango dute.
18:00 Herriko Plazan koadrilek MAKALA jasoko dute. Gero, Triki Poteoa.
18:00 Uarkape Udal Pilotalekuan Koadrilen

Arteko Pilota Txapelketako finalak.

19:30 San Juan Batailatzailearen Parrokian SALBE SOLEMNEA.
21:30 Nafarroa etorbideetik Herriko Plazaraino ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek hartuko dute parte.



JAIEN BEZPERAN, SALBEA PARROKIAN

22:30 SAN JUAN SUA Herriko Plazan.
22:30 NAGUSIEN DANBORRADA. Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea, Herriko Plaza. SUDCek antolatua.
Jarraian Herriko Plazan GAUBELA taldearekin DANTZALDIA.
23:00 Txosnagunean ROCK KONTZERTUA.

Martitzena 24

08:15 Herriko Plazan TXOKOLATE-JANA.
08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN
09:00 ENTZIERROA. Ferrerias kaletik irten, eta Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean, Laubide plazan egongo den zezen-plazan bukatuko da.
Gero, zaleendako bigantxak egongo dira zezen-plazan.
11:00 San Juan Batailatzailearen parrokian MEZA NAGUSIA.
11:00 ARRASATEKO ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSaren irteera.

Briz ASEGURUAK S.L.



ZURICH
ASEGURUAK

Zorionak, denoi!

CASIMIRO BRIZ SALINERO
Aseguru - Aholkularia

EGITARRAUA



URTERO MODUAN, ZEZENEN IKUSKIZUNEK PLAZA BETEKO DUTE

12:00 Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA.
12:00 Herriko Plazan Ohorezko Aureskua eta San Juan Zortzikoa dantzatuko dituzte.
12:30 Abaroan 80 URTETIK GORAKO NAGUSIEI OMENALDIA.

13:00 Monterron parkean KONTZERTUA emango du Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAK.

Egitarraua:
 - Puenteareas (R.Sautullo)

- *Ross Roy* (J. De Haan)
 - *Lawrence de Arabia* (M. Jarre)
 Zuzenketak: A. Reed
 - *Charlie Chaplin* (Chaplin, Delange, Willson, Phillips Parson) Zuzenketak: M. Pecters
 - *Tema de Rocky* (Bill Conti)
 - *Xilophonia* (Joe Green) Zuzenketak: Elgoro
 - *Gora Uzkudun* (F. De Beobide)
 - *Gora Arrasate* (J. Arzamendi)
 - *San Juan* (herrikoia)
 Zuzenketak: Juan Arzamendi
Zuzendaria: Jose Ramon Elgoro

19:00 ARRASATEKO GAITARIEKIN KALEJIRA.
19:30 BERTSO TRIKI POTE OA.
20:00 MARIACHI EMPERADORES taldearekin KALEJIRA
21:00 Herriko Plazan DRAGOI-JANA. Han erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AED, AEK eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Prezioa: 10 euro. Antolatzaileak: AED, AEK eta Euskal Herrian Euskaraz.
23:00 - 00:00 Monterron parkean MARIACHI EMPERADORES TALDEAREN emanaldia.
00:00 Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak.
00:30 Herriko Plazan Euskadi Gazteko DISKO FESTA.
00:30 Monterron parkean MARIACHI EMPERADORES TALDEAREN emanaldiak segituko du.
4:30 Kulero eta galtzontzilo lasterketa herrikoia.

Eguaztena 25

08:15 Herriko Plazan TXOKOLATE-JANA.
08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN. GAITARIEKIN.
09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleendako bigantxak egongo dira zezen-plazan.

10:00 Haur eta gaztetxoak iratzartzeko Diana izango da.
11:45-12:00 Seber Altube plazatik pasatzen diren umeei eta gaztetxoei, borlak, marakak eta banderatzokak banatuko dizkiete, EGUZKI LARURI ongietorri beroa egin diezaioten.
12:00 EGUZKI LARURI ongietorria Zaldibarren.
 Gero, jolasparkea (puzgarriak, kart-ak eta lantegiak) irekiko dute, 14:30ak arte.
14:30 Haur bazkaria Zaldibarren.
16:00 Zaldibarren Eguzki Laruren jolasparkea irekiko dute berriro, 17:30ak arte.
17:30 Alde zaharrean zehar Olinpi-poteoa, txarangarekin.
17:45-19:15 Zaldibarren TOP MANTA ikuskizuna.
19:15 Zaldibarren EGUZKI LARURI agurra.
20:00 Seber Altube plaza inguruan Trapu Zaharra taldearekin KALE ANTZERKIA: *ELVIS VETE YA!*
23:00 Herriko Plazan DANTZALDIA Ene Bada taldearekin.
23:00 Monterron parkean BENITO LERTXUNDIren KONTZERTUA.

Eguena 26

08:30 DIANA ARRASATEKO GAITARIEKIN.
09:00 ENTZIERROA. Aurreko eguneko ibilbidetik. Gero, zaleendako bigantxak egongo dira zezen-plazan.
11:00 KALEJIRA INCANSABLES txarangarekin.
11:00 ARRASATEKO ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.
12:30 KALEJIRA ARRASATEKO TRIKITILARIEKIN.
18:00 Herriko Plazan HAUR ANTZERKIA Hortzmuga taldearekin: *Klaketa*.
17:00 INCANSABLES txarangarekin KALEJIRA.
19:30 Herriko Plazan SOKA DANTZA.
19:30 Txosnagunear ROCK KONTZERTUA.

AREITIO kirolak



San Juan zoriontsuak izan!

Zarugalde, 35 Tel: 943 79 38 38

20.500 ARRASATE

Udalatx
Inmobiliaria

San Juan zoriontsuak izan!

Maalako Errabala 27-behea ARRASATE
 Tel.: 943 79 59 99
 E-posta: udalatx@udalatx.com
 Web orria: www.udalatx.com


- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak


MADINA ZURAK

Aroztegia


- Olak
- Aglomeratuak
- Kontraxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

PUB
HAIZEA



ilusiorako mila eta zazpi arratsi



UARCAPE LEPO BETETA REALA ANIMATZEKO

Joan den domekan Celtaren eta Realaren arteko partidua ikusteko goraino bete zen Uarkape Udal Pilotalekua. Pantaila erraldoia jarri zuten Arrasateko pilotalekuan, eta ideia horrek sekulako arrakasta izan zuen, 1.500 lagun egon ziren-eta partidua ikusten. Jende asko kanpoan geratu zen, Uarkapen lekurik ez zegoelako.

70EKO HAMARKADAKO JAIA

Zapatuan 17:00etan hasi zen 70eko hamarkadako jaiak, eta lehenengo ordutik jende asko hurreratu zen Arrasateko gaztetxe berrira. Asko, gainera, mozorrotuta joan ziren. Aurtengoa jai hori egiten duten bigarren aldia izan da, eta izan duen arrakasta ikusita, baliteke datorren urtean ere egitea. 50eko, 60ko eta 70eko musika doinuak entzun ahal izan ziren gaztetxean zapatuan, eta bertara hurreratu zirenek ederto pasatu zuten, aspaldiko doinuak entzutea eskertzekoa izaten da-eta. Jaiak gaueko ordu txikietan amaitu zen, eta ondo amaitu ere!



UMEEN DANBORRADA

Zapatu arratsaldean egin zuen beroa ez zen danborra jotzeko oztopo izan. Ia 200 neska-mutikok ederto astindu zituzten danborrak, eta horrek San Juanak gertu daudela iragarri zuen. Herritar asko egon ziren danborrada ikusten, eta umeek abilezia galanta erakutsi zuten. Ikusi egin beharko da astelehenean nagusiek trebezia bera erakusten duten. Argi dagoena da parte-hartzaile kopuruak ez duela behera egingo, 200 lagun baino gehiago egongo dira-eta nagusien danborradan.

HAURTXOIA

Arrasate Pasealekua 4 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 90





San Juan 1 A,
BERGARA
943 76 54 91
Faxa:
943 76 08 04

UGARTE

AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak




Zenbaki

AHOLKULARITZA

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea

- Lana
- Juridikoa

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua)
ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
posta elektronikoa: zenbaki@zenbaki.es
webgunea: www.zenbaki.es



**DIRU-KUTXAK, POSTONTZIAK,
GILTZAK SAILKATZEKO ARMAIRUAK...**

JOSE MARIA GALLASTEGUI Y CIA, S.A
Gipuzkoa Etorbidea, 32
20500 ARRASATE



Jai zoriontsuak izan!



Garibai etorbidea z/g
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23
Faxa: 943 79 41 11



"la Caixa"

UMEAK

Eguzki Laru herrian izango da jaietan

Eguaztena Umeen Eguna izango da, eta aurten ere Zaldibar jolasleku erraldoi bihurtuko da


IKER BARANDIARAN

Eguzki Laru ez du kalerik egingo eta ekainaren 25ean, eguaztenean, Arrasatera etorriko da. Arrasateko umeek ongiatorria egingo diote Zaldibarren.

ponpoi, maraka eta banderaxoak banatuko dizkiete. Horrekin guztiarekin *Txarangelaru* osatuko dute eta umeak kalejiran joango dira Zaldibarreraino; 12:00etan, Eguzki Laruri ongiatorria egingo diote Zaldibarren. Eta puzgarriak eta lantegiak jarriko dituzte abian Zaldibarren bertan.

JOLASAK ETA BAZKARIA

Ohiko puzgarriez gainera, Txatxilipurdik lau lantegi prestatu ditu: aurpegi margotzea, globoflexia, betaurrekoak egitea eta saskinaskiak. Lantegi gehienek birziklapenaren ideia sustatu gura dute. Egun osoan, umeekin batera Txatxili-



ANDER GILLENEA

Arrasateko umeek gogoz hartzen dute San Juanetako Umeen Eguna.

purdiko begiraleak ibiliko dira lanean. Eguraldi txarra eginez gero, ekintzak Uarkape pilotalekuan egingo dituzte.

14:30ean, Zaldibarren batutako umeek herri bazkaria izango dute. Aurretik umeek edo gurasoek izeña eman beharko dute ludote-

ketan edo Txatxilipurdiren egoitzan bertan. Bazkarian ere begiraleak ibiliko dira lanean.

Ondo bazkaldu ondoren, 16:00etan, jolasleku erraldoia berriro zabalduko dute. Gune berean, 17:45ean, *Top Manta* ikuskizun berria eskainiko dute. 19:15ean eguna bukatutzat emango dute, Eguzki Laruri agur egin eta gero.

Eguzki Laruri ongiatorria egiteko, jolasleku erraldoia eta antzerki eta musika ikuskizuna prestatu dituzte Zaldibarko pilotalekuan

Eguaztena, 25
12:00etan

Zaldibarren

Eguzki Laruri ongiatorria. Puzgarriak, lantegiak...

'Top Manta' ikuskizuna

Txatxilipurdik, urtero, hainbat ekintza antolatzen ditu Umeen Egunean. Horien artean, azkeneko urteotan egun horretarako, umeen egunerako, *karaoke* edo ikuskizun bereziak prestatu izan ditu.

Eta aurten, berritasun gisa, *Top Manta* izeneko ikuskizuna estreinatuko du. Zaldibarren antzestu-ko du, 17:45ean. Lan horrek antzerkia eta *karaoke*-a uztartzen ditu.

Ikuskizunean hiru pertsonaiak egiten dute lan: kale garbitzaileak, txakurrak eta *mantero*-ak. *Mantero*-ak kalean CDak saltzen dihardu eta saltzen dabilela abestu egiten du. Kale garbitzaileak ez du musika gustuko, eta bien arteko eztabaida piztuko da. Ikuskizunean hainbat kantu abestuko dituzte, umeen laguntzarekin.

Ondo pasa
San Juanak!

LOS
VAQUEROS

sport wear

ELKARRIZKETA SERGIO ARROYO ARRASKA TALDEKO KIDEA

“San Juanetan egingo dugun ‘skate’ jaian denetik egongo da: kontzertua, grafitiak, DJ-a...”

XABIER URZELAI

San Juanetan egingo duten *skate* jairako jo eta ke lanean harra-patu dugu Sergio Arroyo. Aretxabaletan daude, *skate*-an ibiltzeko arrapalak eta barandak egiten. Jaian, baina, *skate*-ak baino askoz ere gauza gehiago egongo dira.

Zenbat urte *skate*-aren gainean?


Urte asko... 13 urte bai, behintzat. Orain dela urte batzuk *skate*-a modan egon zen, eta gazte askok praktikatzen zuten. Gero, moda hura desagertu egin zen, baina nik *skate*-a egiten segitu nuen. Oñatiko lagun batekin Gasteizera joaten nintzen, han *skate*-ak ez du eta behera egin. Eta azkeneko bi urteotan berriro ere *skate*-arekiko zaletasuna bueltatu da herrira. Jendea konturatu da kirol hori ez dela umeen kirola, eta orain gehiago errespetatzen gaituzte.

Gogotsu dabil Arraska taldea.

Bai, Arrasateko *skate* taldea sortu genuenetik hona San Juanetakoa bigarren ekitaldia izango da. Otsailean Musakolako kiroldegian egin genuen jai moduko bat, eta harrera ona izan zuen. Jende dezentte hurreratu zen, eta orduan bururatu zitzaigun San Juanetarako beste jai bat presatzea.

Zer egongo da San Juanetan egingo duzuen *skate* jaian?

Skate jaia Zaldibarren egingo dugu, eta gauza asko egongo dira. Esan behar dugu proposamen berrietara guztiz irekita gaudela, eta norbaitek edo talderen batek jaiari zerbait gehitu gura badio, guk ez daukagu inongo arazorik. *Skate* jaian hainbat arrapala eta baranda jarriko ditugu *skate*-arekin ibiltzeko. Kanpotik hainbat lagun etorriko dira, Gasteiztik, batez ere, eta ikuskizun polita izango da. Horrez gain, grafitiariak ere izango dira, grafitiak egiten, eta musikaz gozatzeko aukera egongo



Arraska taldeko Sergio Arroyo, prestaketa lanak egiten.

“Jaia egiteko lan handia egiten gabilta. Arrapala eta barandarik ezin dugu alokatu, ez dago; berriak egitea besterik ez dago”

“Urte asko daramatzagu ganorazko ‘skate’ parke bat eskatzen, Arrasaten zaletasuna dago-eta”

da. Kontzertua antolatu dugu, eta DJ-a ere egongo da. Ikusten den moduan denetik apur bat egongo da.

Jaia egiteko izan duzue Udalaren laguntzarik?

Bai. Behingoz nahiko ondo portatu dira gurekin, jaiaren aurrekontu erdia ordaintzeko dirua eman digute-eta. Esango nuke eskertu egin dutela San Juan jaien barruan ekitaldi berri bat egitea, eta horregatik lagundu digute.

Urte asko daramatzagu *skate* parke bat eskatzen.

Bai. Orain dela urte asko

Zaldibarren jarri zuten U plataforma txiki bat. Nahiko barregarria zen, eta gero, Santa Barbaran U plataforma handia jarri zuten. Beste muturreraino joan ziren. Orain, leku berean, eta gurekin berba egin barik, arrapala bi eta baranda bi jarri dituzte, baina horrekin ez gara konformatzen. Oraingoz hantxe gabilta, baina ez da nahikoa, eta Arrasaten geroago eta zaletasun handiagoa dagoenez, hori txiki geratuko da. Urte asko daramatzagu ganorazko *skate* parke bat eskatzen, Arrasaten zaletasuna dago-eta.

ZABALA

oinetakoak

55 urtean elkarrekin ibili gara

Ospa ditzagun San Juanak

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27



San Juanetan
alda ezazu
zure orrazkera

Kontzezino 4 - behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 78 09



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42
Tel.: 943 79 53 32

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Zugan pentsatuz, laguntzeko prest

- Plantila bereziak, behar bakoitzak berea.
- Aluminioko gurpil aulkjak; arinak, tolesgarriak eta elektrikoak.
- Ohe artikulatuak, koltxoi bereziak.
- Lanerako oinetakoak.

Lagun-Aro-ko errezetak hartzen ditugu.

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

KIROLAK

28
zapateria

San Juan jaien barruan, Arrasateko San Andres Xake Taldeak Xake Bizkorreko Txapelketa antolatu du datorren zapatara, hilak 28. A urten, baina, txapelketa Arrasateko kaleetan egin beharrean, euren lokalean egingo dute, horretarako gertu daukate-etakalokala. Taldeko kideen esanetan, Arrasate Hiria Xake Txapelketa amaitu egin berria, eta ez dute San Juanetako txapelketa antolatzeko asti nahikorik izan.

JOSU TORNAY IRABAZLE

San Juanetako Xake Bizkorreko Txapelketa jokatzearekin batera, Arrasate Hiria Txapelketako sariak banatuko dituzte, eta Josu Tornay m ondagoetarrak jasoko du lehen saria: 360 euro. Joan den egubakoitzean jokatu zuten txapelketa horretako seigarren eta azken jardunaldia, eta hiru jokalariek zeuden irabazteko aukerak. Leopoldo Lainzek zuten txapelketa eskuratzeko aukera gehien, baina azken jardun-



Aurten ere Xake Bizkorreko Txapelketak ez du kalerik egingo, eta txapelketa hori jokatzearekin batera Arrasate Hiria Xake Txapelketako sariak banatuko dituzte.

naldian Borja Zamarbide gazte nafarraren kontraneurtu zituen indarrak, eta Zamarbidek ere txapelketa eskuratzeko aukerak

zituen. Oso gutxi arriskatu zuten, eta berdindu egin zuten. Eta aukera horiez hobe aprobetxatu zuten Josu Tornayk, eta Txema

Hernandori irabazita txapelketa eskuratu zuen. Denak, baina, ez dira berri onak. Arrasateko Xake Taldekoek esan digutenez, aur-

ten zailtasun ekonomiko handiak izan dituzte Arrasate Hiria Xake Txapelketa antolatzeko, eta baliteke datorren urtean holako txapel-

keta bat antolatzeko aukerarik ez izatea. Puntapuntako txapelketa bat antolatzeko dirua behar da, baina ez dago dirurik.

Takoi

- Zapata konponketak
- Giltzen kopiak
- Urrutirako agente tresnen kopiak

Kalealdea 2 -behea (Larreako etxeak)
Tel.: 943 79 84 95

Zubizaneta




GALERIA 44

Denda berezia
Ondo pasatu San Juanak

Zerkaosteta 8 Tel.: 943 - 79 90 50 • ARRASATE

LANDALUZE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Etxeko tripakiak
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86
ARRASATE



Izozkitegia

Gozotegia
Italiar izozkitegia
Kafetegia

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

KIROLA


Laugarren urtez, arku tiroketa izango da San Juanetan

Arrasatekoa Liga Txapelketako lehenengo jardunaldia izango da

XABIER URZELAI

Domekan, arku tiroketaz gozatzeko beste aukera bat izango dute mondragoetarrek. Oraingoa, baina, ez da erakustaldia izango: Liga Txapelketako lehenengo jardunaldia egongo da jokoan.

Domekan, Liga Txapelketako lehen jardunaldia jokatu dute Gipuzkoako eta Bizkaiko zortzi taldek Zaldibarren, 12:00etan. Liga Txapelketa hori bost jardunaldik osatuko dute, eta Arrasatekoaren ostean, hurrengo jardunaldiak Zornotzan, Barakaldon, Oñatin eta Durangon jokatu dituzte. Bizkaitik Durangoko, Zornotzako, Barakaldoko, Bilboko eta Etxebarriko taldeak izango dira eta Gipuzkoatik, berriz, Eibarko, Oñatiko eta Arrasateko taldeak hartuko dute parte txapelketan. Talde bakoitza hiru arkulariz egongo da osatua, eta taldeak mistoak izan daitezke.



Joan den urtean jende asko hurreratu zen Zaldibarrera arkularien erakustaldia ikustera.

Adinak ere ez du garrantzirik, gazte edo nagusiek osa dezakete-eta taldea.

ETXEAN JOKATZEN

Miguel Galván Arrasateko SP-10 taldeko kidearen esa-

“Arku tiroketa ikusi baino gehiago, probatu egin behar da, eta domekan, herritarrek horretarako aukera izango dute”

netan, gaitza da kirol horrekiko zaletasuna bultzatzea: “Akaso, ikusteko ez da oso kirol ikusgarria, baina probatzen denean beste kontu bat da. Domekan, txapelketaren amaieran, gura

duenak arku hartu eta saio batzuk egiteko aukera izango du”.

Lehen jardunaldia etxean jokatu du SP-10 taldeak, eta Miguelen esanetan hori eskertzekoa da. Txapelketak Robin Apple modalitatea izango du, gainerako modalitateak baino ikusgarriagoa delako. Modalitate horretan, arkulariak 18 metrora jartzen dira, eta puxika bi eta uztaiz eta sagar bana izaten dituzte helburu.

Arrasateko SP-10 taldea orain dela lau urte sortu zen, eta 13 lagunek osatzen dute. Taldearen helburua herrian gero eta zale gehiago egitea da. Eguenero, 19:00etatik 21:00etara Arizmendiko San Viator gunean izaten dira entrenatzen. Miguelek gonbita egiten die herritarrei egunetan San Viatorreran joan eta kirol hori hurrerotik ezagutzea eta proba dezaten.

Edo, San Viatorreran joan aurretik, domeka eguerdian hurrera zaitezte Zaldibarrera, arkulariak zer egiteko gai diren ikustera, eta probatzera.

egizabal oinetakoa

*Erosotasuna da
gure oinetakoen marka*



ARRASATE, Olarte 14

Tel:943796601

BERGARA, Bidekurutzeta 13

Tel:943761228

KIROLA

Koadrilen arteko finalerdiak eta San Juan Txapelketa jokoan

Debarroko Txapelketako finalean Zugastik eta Lazkanok 22-20 galdu zuten Aretxabaletaren kontra

XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, pilota gustuko duzuenok hitzordu bi izango dituzue Uarkapen. Batetik, Koadrilen Arteko Txapelketako finalerdiak jokatuko dituzte eta, bestetik, San Juan Pilota Txapelketako finala egongo da ikusgai.

Ekainean, kirol arloan, pilota izango da protagonista, hainbat txapelketa eta jaialdi izango dira-eta. Joan den zapatuan, San Juane-tako pilota jaialdiaren barruan, lehen mailako pilotariak ikuskizun polita eman zuten: 22-20 nagusitu ziren Esain eta Beloki Unanue eta Pascualen kontra.

Egun berean, zapatuan, alegia, Arrasateko senior mailako pilotariak Debarroko Txapelketako finala jokatu zuten Aretxabaletako Errasti anaien kontra. Final ikusgarria izan zen, eta aretxabaletarrak nagusitu ziren (22-20). Arrasatearrak 7-0 aurreratu ziren,



Mondragoeko pilotariak, Zugastik eta Lazkanok, ez dute Debarroko Txapelketa irabazi, baina sekulako txapelketa egin dute.

baina Errasti anaiak esnatu eta partidua berdintzeaz gainera, markagailuan aurreratzeko gauza izan ziren (15-10). Arrasatearrek ez zuten amore eman, atzetik joan eta gero 15-15 ber-

Bihar, zapatua, San Juan Pilota Txapelketan herri askotako pilotari gazteak izango dira Uarkapen

dintzea lortu zuten-eta. Berdinketa hori lortzeko Zugastik aurrealdean asko arriskatu behar izan zuen, baina eginbeharrak ondo eginda berdindu zuen partidua. Partiduko azken

txanpan egin zuen Ibon Errasti atzelari aretxabaletarrak min handien. Pilota ondo gozatuz, atzeraino bidali zuen pilota hainbat tantotan, eta Lazkanori sufritzea tokatu zitzaion (19-15). Arrasatek erreakzionatzeko gaitasuna izan zuen (20-20), baina azken tanto biak aretxabaletarrek egin zituzten (22-20).

BIHAR, HITZORDU BI

Bihar, 11:00etan, koadrilen arteko finalerdiak jokatuko dituzte Uarkapen. Txapelketa horretako finala, berriz, astelehenean (hilak 23) izango da, 18:00etan.

Pilotarekin segituz, bihar, 16:00etan, Arrasateko Pilota Taldeak antolatutako San Juan Pilota Txapelketako finalak egongo dira jokoan. Hain zuzen ere, 8, 9, 10 eta 11 urteko pilotarien finaletan, besteak beste, Elgetako, Antzuolako, Eskoriatzako, Aretxabaletako, Azkoitiko eta Arrasateko pilotariak izango dira. 12 urteko pilotarien finala, berriz, Arrasateko pilotarien artean erabakiko da.

SIKOL

Olarte 31 - ARRASATE - Tel.: 943 79 89 32



KALE GIROA

Ekintza ugari kaleko giroa alaitzeko

Konpartsek, txarangek eta beste hainbat ekintzak girotuko dute kalea aurtengo Sanjuanetan

USOA AGIRRE

Tabernetan ez ezik, kalean ere jaiak ospatzeko aukera izaten da, eta aurten ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte Sanjuanetan kaleko giroa berotzeko.

Trikitilariak, txarangek, konpartsak, kale antzerkia, dantzaldia eta beste hainbat ekintza egongo dira aurtengo Sanjuanetan kaleak alaitzeko. Jaietan giroa berotzea ez da gaitz izaten, jendea festarako gogoz egoten da-eta, baina beharrez-

koa da gauzez ez ezik, egunez ere festa giroa izatea.

KALEAK EKITALDIZ BETEAK

Astelehenean txistularien esku egongo da jaietako lehen orduak alaitzea: 15:00etan hasiko dira Arrasateko txistulariak kalez kaleko dianarekin, eta gero, 16:00etan, etxafuegoak eta bonba japoniarrak izango dira Herriko Plazan.

San Juan Bataiatzailearen parrokiaren Salbe Solemnea izango da arratsaldeko zazpi eta erdian, eta nagusien danborradaren ostean, eguna amaitzeko, Gaubela taldearen dantzaldia egongo da Herriko Plazan.



ARRASATE PRESS

Aurten ere Arrasateko trikitilarien esku egongo da, besteak beste, herriko kaleetako giroa berotzea.

Kaleko giroa berotzen izango direnak

ASTELEHENA, 23

15:00 Txistulariekin diana.
16:00 Herriko Plazan etxafuegoak eta bonba japoniarrak.
19:30 San Juan Bataiatzailearen parrokiaren Salbe Solemnea.
23:30 Gaubela taldearekin dantzaldia.

MARTITZENA, 24

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.
09:00 Entzierroa Ferrerías kaletik hasita.
11:00 Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsaren irteera.
12:00 Herriko Plazan Aureskua eta

San Juan Zortzikoa dantzak.

19:30 Bertso-triki-poteoa.
21:00 Dragoi Jana Herriko Plazan.
24:00 Su artifizialak.

EGUAZTENA, 25

20:00 Trapu Zaharra taldearekin kale antzerkia.

EGUENA, 26

11:00 Kalejira Incansables txarangearekin.
11:00 Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsaren irteera.
12:30 Trikitilarietako kalejira.
14:30 Herri bazkaria Seber Altuben.

San Juan eguneko lehen orduetan Arrasateko gaitarien diana izango da, eta gero, goizeko bederatzietan, entzierroa irtengo da Ferrerías kaletik. Hamaketan hasiko da erraldoi eta kilikien konpartsa, eta hamabietan, ohorezko aureskua eta San Juan Zortzikoa dantzatuko dituzte Herriko Plazan. Arratsaldeko zazpi eta erdian bertso-triki-poteoa izango da tabernaz taberna, eta bederatzietan, Dragoi Jana dastatzeko aukera izango da Herriko Plazan. AEDk, AEK-k eta Euskal Herriaren Euskaraz-ek antolatuta, plazan bertan erretako dragoia jateko aukera egongo da. Dragoi Janerako txarrelak salgai daude AED, AEK, Monte eta Iturriotz tabernetan, hamar euroren truke.

Eguaztenean, berriz, antzerkiak alaituko du Arrasateko giroa, Trapu Zaharra taldearen eskutik *Elvis vete ya!* ikuskizuna izango da-eta kaleetan zehar. Eta egunean, San Juan jaien azken egunean, Incansables txaranga izango dugu kaleak alaitzen goizean eta arratsaldean. Txarangearekin batera erraldoi eta kilikien konpartsa ere irtengo da goizeko hamaketan, eta hamabi eta erdian herriko trikitilarien txanda izango da. Azken egunean ohitura denez, herri bazkaria egongo da ordu bi eta erdian Seber Altube plazan.

N & N sol

Solarium eta Estetika Zentroa

Zerbitzu osagarriak:

Mota guztietako tratamendu estetikoak
Depilazioa
Manikura, pedikura
Gel-azazkalak
Permanenteak eta betileen tindatzeak

Ordutegia:

Astelehenetik egubakoitzera,
10:00etatik 20:30era
Zapatuetan, 10:00etatik 14:30era

Solariumerako bonuak:

Saio bat 5 €
10 saioko bonua 42 €
20 saioko bonua 72,5 €
30 saioko bonua 90,5 €




MARGA

jantzi denda

*Ondo pasa
San Juan jaiak!*

Iturriotz 21 • ARRASATE
Tel.: 943 71 17 40

San Pedro 20 • BERGARA
Tel.: 943 76 05 37



TERRACOTTA



GUERLAIN PARIS

- Maletak eta poltsak
- Bisuteria
- Opariak

KOSMETIKA
Lancaster
Guerlain
Elizabeth Arden



Kanpatorpea, 4 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 19

*Paraje eder
baten kokatua*

*Atsedenerako
behar den
guztiarekin*


*Enpresa
bilerak
egiteko leku
egokia*

*Dasta ezazu
gure menurik
goxoenak*

Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82



NACEX

Telefona: 943 79 92 77 / Orokorra: 900 100 000
www.nacex.com



NACEX NACEX NACEX NACEX NACEX NACEX



MUSIKA

Benito Lertxundik ikuskizuna eskainiko du jaietan

'Nere ekialdean' azken diskoa aurkeztuko du musikari oriotarrak Monterronen

USOA AGIRRE


Ekainaren 25ean, irudia eta musika nahastuko ditu Benito Lertxundik Monterron parkean, 23:00etan. Kantu berriak aurkeztuko ditu.

Euskal Herriko musikari eta kantari handienetakoa da Benito Lertxundi. Hamarkadak daramatza musikan lanean, eta denbora horretan guztian gauza izan da ibilbide artistiko propioa erakitzeko. Ez dok Amairu talde mitikoarekin egin zituen

lehen urratsak Benito Lertxundik musikaren alorrean, eta taldetik kanpo ere zazpi single atera zituen 1967 eta 1969 urte bitartean (geroago bere lehenengo LPan batuko zirenak), eta ordurako nabarmena zen kantari handi eta oparo baten hasiera zela hura. Gaur egun, euskal musikagintza berriaren protagonistetako bat dugu Benito Lertxundi.

HAMAHIRU DISKO KALEAN

1969 eta 1971 urte bitartean galarazi egin zioten Gipuzkoan eta Bizkaian kantatzea. Hala ere, oriotarrak ez zuen etsi eta bigarren diskoa plazaratu zuen 1973an, *Oro laño mee batek*, Lizar-



Benito Lertxundiren ikuskizunak jende mordo batuko du Monterronen.

diren poema batzuetan oinarrituta. Hurrengo urtean, Zuberoako kantez osatutako...*eta maita herria, ùkhen*

dezadan plazera diskoa kaleratu zuen. Azken bi hamarkadotan disko ugari plazaratu ditu Benitok, bai-

na aipatzekoa da 1998an Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera grabatu zuen disko arrakastatsua, *Ahuen Sinfonikoa*.


2002ko urrian kaleratu zuen azken diskoa, *Nere ekialdean* izenarekin. Disko horretan sentimendu liriko eta estetiko natural bezain barnekoi batek kantatzen du, melodia iradokitzaileak

Eguaztena, 25
23:00etan
Monterronen

eta burutazio eternoak utzita. Errepertorioaren berezko balioaz gainera, moldaketan aberastasunak eta amaierako soinuak kantuen komunikazioa areagotu eta biderkatu egiten dute. Itsoa eta bere nostalgiaren nagusitasunak, Fernando Pessoren poesia pertsonalak eta gai guztietan presente dagoen erlijiozkotasunak, Benito Lertxundik bakarrik sortu eta imajina lezakeen mundu miresgarria osatzen dute. *Nere ekialdean* Benitoren disko landu eta garatuena dugu.

2002ko azaroan egin zuen *Nere ekialdean* diskoaren aurkezpen bira Donostian, Bilbon, Gasteizen, Miarrizten, Iruñean, Madrilan, Bartzelonan eta beste hainbat hiritan. Birak izan zuen arrakastaren ondoren, *Nere Ekialdean Tour 03* birako kontzertuak hasi ditu berriro, eta Arrasaten izango da hilaren 25ean. Monterrongo parkean izango da eta kontzertua horretan, birarako espresuki diseinutako argi eta soinu muntaiarekin izango da musikari oriotarra. Ea eguraldiak laguntzen duen!

'Nere ekialdean' izeneko azken lana Benitoren disko landu eta garatuena dela diote zenbait adituk



JOSE ANTONIO

Otalora lizentziaduna 22 - ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

Ondo pasa San Juanetan!

GIZONEZKOEN ILE APAINDEGIA

MUSIKA

Rock jaialdia egingo dute zapatuan

Punta-puntako punk-rock eta rock-and-roll taldeek kontzertua egingo dute


IKER BARANDIARAN

Sex Museum taldeak eskola handia du, eta oso onak direla diote askok. Harekin batera, The Boogie Punks, Señor No eta The Jukebox taldeek joko dute.

Sex Museum taldea oso ezaguna da Espainiako Estatuan. Batzuen iritziz, Espainiako Estatuan dagoen talde onenetakoa da. 1986an sortu zen, Madrilen, eta gaur egunera arte zortzi disko eta 12 single kaleratu ditu. Horrez gain, bilduma asko

tan sartu dituzte kantuak, atzerriko batzuetan barne. Taldea honako hauek osatzen dute: Fernando Pardo (gitarra), Miguel Pardo (ahotsa), Marta Ruiz (*hammond* eta sekuentziadorea), Pablo Rodas (baxua) eta Roberto Loza (bateria). Taldea sortu zutenean 60ko hamarkadako rocka oinarri hartu zuten eta *garage* eta *psikodelia* musika estiloetan murgildu ziren. Arrakasta handiko diskoak grabatu zituzten.

DEEP PURPLE-REN SEMEAK
Geroago *hard-rock* musikara hurreratu ziren eta Deep Purple taldearekiko miresmena aitortu zuten. Horra hor saria: 1994an



ARRASATE PRESS

90eko hamarkadan, Sex Museum taldeak kontzertua eman zuen Arrasateko gaztetxean.

Deep Purple taldeak Espainiako Estatuan zehar bira egiteko laguntzaile aukeratu zuen Sex Museum.

Estatuko jaialdi ospetsuenetan sarritan jo dute eta Europan zehar hainbat bira egin dituzte. 1997an

urtebeteko atsedena hartu zuten, baina taldekideak ez ziren geldirik egon: batzuek surf instrumental estiloa jorratzen duen Los Coronas taldea sortu zuten, beste batzuek No Wonder... Bestalde, azkenaldian bateria bi erabili dituzte eta tarteka elektronika sartzen dute. Zuzenekoak itzelak dira. Ikusiko duzu!

Sex Museum taldeak 1986tik gaur egunera arte 'garage', 'psikodelia', 'hard-rock' eta beste hainbat musika estilo jorratu ditu

Zapatua, 21
22:00etan

Monterronen

Sex Museum, Señor No, The Boogie Punks eta The Jukebox

Donostia, Bilbo eta Arrasate

Sex Museum talde ezaguna izan arren, harekin joko dutenek ere maila altua dute.

Donostiako Señor No taldeak punk-rock eta rock-and-roll *basatia* egiten du eta dagoeneko izen handia hartu du. Kalean lau disko ditu eta azkenak, *Siempre te diré que no* lanak, oihartzun handia izan du. Arrasaten ezagunak dira, eta gaztetxean behin baino gehiagotan izan dira.

The Boogie Punks gazteagoa da. Taldeko partaideak, oster, hainbat talde-tan ibiliak dira. *Rock-and-roll* eta *rockabilly* estiloak uztartzen dituzte, eta oso harrera ona izan dute.

Arrasateko The Jukebox ere han izango dugu. *Rock-and-roll* eta *punk-rock* taldeen bertsioak jotzen dituzte, oso-oso txukun.



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 01 51 • Poltsikokoa 608 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

Faxa: 943 77 15 03



PATRICIA
CLARKS
YANKO
MASCARÓ
LOOKY
24 HRS
NOD
PIELSA
CATS
KOLLFLEX
PLUMERS
WONDERS

OINETAKOAK

Yoar

Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

Jose Mari Salegi

Berezitasuna:
etxeko txorixoak

HARATEGIA-URDAITEGIA

Ondo pasau jaiak!

Olarte kalea 20 Tel.: 943 79 45 55



TABERNETAKO EGITARAUA

Herriko zortzi tabernak egitaraua prestatu dute

Ekainaren 25ean, eguaztenean, hainbat kontzertu antolatu dituzte

Eguaztena, 25

18:00etan

Erdialdeko zortzi tabernatan

IKER BARANDIARAN

Azkeneko urteotan San Juanek izan duten beherakadarekin arduratuta, herriko zortzi tabernak egitarau berezia antolatu dute eguaztenerako, ekainaren 25erako.

Azkeneko urteotan San Juan jaiek zelanbaiteko beherakada izan dute, eta aurten ere badirudi herritar askok kanpora joko dutela, oporretan. Horrek jaiari kalte egiten dio, eta herriko koadrilek egiten duten moduan, tabernariak ere egitarau berezia antolatu dute eguaztenerako, ekainaren 25erako. Alde zaharreko zortzi tabernak -Basati, Iturriotz, Ekaitz, Jai-Zale, Iluntz, Biona, Etixerat eta Irati- arduradunek elkartu eta hainbat kontzertu eta disko jartzaile baten saioa antolatu dituzte eguazten arratsalderako.

Iaz ere horrela egin zuten, aspaldi Intsumiso



Argazkian, joan den urteko San Juanetan Teclas taldeak Biona tabernan eman zuten kontzertua.

ANDER GILLENEA

Egunean antolatzen zuten egitarauaren ereduari segituta, hain justu. Edozelan ere, joan den urtean eguneko egitaraua gaztetxean bukatu zuten, eta aurten ez da posible izango. Izan ere,

Rock eta flamenko musika zuzenean, mimo ikuskizuna eta disko jartzaileak izango dira nagusi eguaztenean

gazte batzarra aurreko bi aste bukaeretan antolatu dituen jaialdiekin oso lanpetuta ibili da, eta, horren ondorioz, ezin izan du San Juan jaietarako ekintzarik prestatu.

KONTZERTUAK ETA DJ-AK

Ekainaren 25a, eguaztena, da herriko zortzi tabernak aukeratu duten eguna. 18:00etatik aurrera egongo da zer ikusi eta zer entzun Arrasateko alde zaharrean. Basati tabernan Arrasateko Never Surrender talde gazteak joko du. Punk eta Oi! musika egiten dute; Ekaitz tabernan, 19:00etatik 21:00etara eta 00:00etatik aurrera, DJ Kaietek musika jarriko du; Iturriotz tabernan Egus gitarra jotzaile ezagunak joko du. Aspaldian Bartzelonan bizi da arrasatearra.

Jai-Zalen El Rufian taldeak egingo du kontzertua. Arrasateko eta Gasteizko musikariak gitarrak eta kaxa flamenkoa joko dituzte; Iluntz tabernan, berriz, mimo ikuskizuna egingo dute. *Tornillo* arrasatearrak *Torni Show* emanaldia egingo du. Ez da barrerik falta izango; Bionan punk musika izango da nagusi. Talde bik joko dute: Zona Especial Nortek eta Jodetek; Etixerat eta Irati tabernak, berriz, ez dute zehaztu ze ekitaldi egingo duten.

UNZUETA
J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

rentzeria
B
Bea

Otalora kalea 2
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 05

MURUAMENDIARAZ
GOZOTEGIA

Jai goxo-goxoak izateko

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34



Lore



Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84

COMERCIOS
CENTROCIEN

Arbolapetan
Olarte23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 27

MUSIKA

Arrasate Musikalen presentzia herriko jaietan

Arrasate Musikaleko hainbat taldek kontzertuak eskainiko dituzte datozen egunotan

IKER BARANDIARAN

Ez dago San Juan jairik Arrasate Musikal barik. Izan ere, Arrasate Musikaleko ikasleek eta irakasleek urtero hartzen dute parte San Juan jaietan.

Arrasate Musikaleko ikasleak eta irakasleak herriko saltsa guztietan egoten dira, eta, zer esanik ez, herriko jaietan. Hala, kalejirak egiteaz gainera, Monterronen kontzertua egingo dute eta Errementari Dantzan parte hartuko dute.

Gaur, egubakoitza, kontzertu bi emango dituzte: alde batetik, Arrasate Musikaleko kantuko ikasleek eskainiko dute kontzertua, Musika Eskolan, 18:30ean. Arrasate Musikaleko kantuko irakaslea Tere González da; eta, bestetik, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak eskainiko du kontzertua, gaur, Jose Letona plazan, Iker Olazabalek zuzenduko du taldea, eta emanaldia 19:00etan izango da.

BANDA, MONTERRONEN

Ekainaren 24an, San Juan egunean, Arrasate Musikaleko bandak kalejira egingo du 11:30ean. Horren ondo-



ARRASATE PRESS

Jende asko hurreratzen da San Juanetako kontzertua ikustera Monterronera.

ren, bandak ohiko kontzertua egingo du Monterron parkean.

Arrasateko Musikaleko

bandak urtero Monterronen egiten duen kontzertu horrek jende mordo batzen du, eta herritarrek gustuz

hartzen dute.

Besteak beste, honako kantu hauek joko dituzte: Sautulloren *Puenteareas*, De Haan-en *Ross Roy*, Jarrenen *Lawrence de Arabia*, Chaplin eta Wilson-en *Charlie Chaplin*, Conti-ren *Tema de Rocky*, Green-en *Xilofonia*, Beobideren *Gora Uzku-dun*, Arzamendiren *Gora Arrasate* eta *San Juan*.

Arrasate Musikalek jaietan antolatzen dituen ekimen gehienek herritarren harrera ona izaten dute

**Martitzena, 24
12:00etan**

Monterronen, Arrasate Musikalen kontzertua

00:30ean

Herriko Plazan,
Disco Festa

Euskadi Gaztearen disko festa

Euskadi Gazteko Joseina Etxeberria esatari ezagunak uda osoa herriz herri pasatzen du Euskadi Gazteko Disco Festa muntaiarekin plazak dantzan jartzen.

Joan den urtean, lehenengo aldiz ekarri zuten Euskadi Gazteko Disco Festa Arrasatera, eta izugarriko arrakasta izan zuen. Herriko Plaza bete egin zuten eta jendeak -gaztetxoek, batez ere- gustura egin zuten dantza, nekatu ziren arte.


Sarritan esan ohi dugu Arrasate inguruan ez dela dantza askorik egiten, baina ia ikusitakoarekin, ezeztatu egin beharko dugu esandakoa.

Joseinak bloke batzuk prestatuta izaten ditu, eta inprobisatu ere egiten du. Musika elektronikoa, latinoia eta rocka tartekatzen ditu.

MENDIZABAL okindegia

egunero zure alboan!


ARRASATE
Seber Altube, 2
943 79 89 60



LUA

GOZOKI DENDA

Erdiko kalea 8 - 943 79 66 75





ZUTARRI S.L.

Eraikuntza enpresa

Zuekin lanean kalitate eta konfiantza osoz.

San Juan jai zoriontsuak
opa dizkizuegu

Deitu konpromisorik gabe:

Tel.: 943 79 67 78. Faxe: 943 77 10 09

zutarri@infonegocio.com

Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE

JANTZIDENDA



www.LASAGABASTER.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA



*** nite-lite** [SCENE & BE SEEN]

MARCH/APRIL: *surface released its 'Craftmatic' issue to the media & fashion industry in NYC with an event held in affiliation with CP Company. In San Francisco, the issue was celebrated at Architects & Heroes gallery/salon. After showing in NYC, Boston and LA, *surface's Avant Guardian exhibit was welcomed into its final resting place at San Francisco's Diesel Superstore, where the installation will remain on display this spring.



Kate Moss & Amber Valletta © AMFA



Duncan Sheik © Bottega Veneta



Julia & Alan Cumming © Corinne Bailey

98 *surface

HONEIK EZ DAKIXE

GURE LEKU • EKAITZ • MONTE • ITZALA • BIONIA
BOLIÑETE ERRETEGIA • JAZZ
ONDO PASA

Patrick McMullan



Marc Jacobs after party

Mira Sorvino, Alex Moore & Serena Attichui

Mark & Estler @ DKNY



Ryan Phillippe & Ryan Phillippe - after hours NYC

Uria & friend @ Shearstrop



Kirsty Home & Dorowari Leitch @ Sway

Celine Dimes @ Joe's Pub




Ethan Hoek @ Total House

WILLA GVOVICH



HERE RITTS

RYAN WITH A FRIEND



DESI MAZAR AND ANTHONY KEIDIS

ROMAN ALONZO, LISA EISNER, JAMES KALIARDOS

MICHAEL BERGEN AND BRUCE

anniversary. Il jet-
set internazionale e
il gotha di
Holly...
sta c...
splen-
dore e lo stile di
una carriera unica.



MARISA BERBERSON

DITA MOREIRA & JAMES ALBERT TARTINI CARLOS



MICHAEL AND CHRIS

ERIC CAPREAN AND STEVE SPIELBERG

NA EZKIÑA • KIMETZ • OKORETEGI • RUMBA • LORA
JAZALE • ITURRIOTZ • BASATI
SAN JUANAK!



Urteko jairik ospetsuenetarikoak datoz:
San Juanak. Uda hastear dago. Festaren
lilura gauzez eta egunez. Danborrada,
dantzaldiak, ..., jo ta ke lehertu arte.
San Juanetan, JMA ere jai giroan.

Guztiekin. Betiko moduan.

JMA 

ALEJANDRO ALTUNA, S.A.

MUSIKA

Emperadores mariachi taldeak hainbat emankizun eskainiko ditu

Mariachi talde horrek ospe handia hartu du Mexiko Hiriko Garibaldi plaza esanguratsuan

IKER BARANDIARAN

Aurten ere ez da herriko jaietan mariachirik faltako. Iaz Los Pérez de Nochistlan taldea etorri zen. Aurten, ostera, Emperadores mariachiek eskainiko dute emankizuna.

Ezagun da Euskal Herrian orokorrean eta Arrasaten konkretuki mariachien jarraitzaile asko daudela. Bada, zale horiek zorioneko daude; izan ere, ekainaren 24an, San Juan egunean, Emperadores mariachi taldeak herriko kaleak alaituko ditu kalejiran (20:00ak aldera) eta gauean (23:00etan) kontzertua egingo du Monterronen.

Emperadores mariachi


taldea 1994an sortu zen. Taldea sortu zenetik gaur arte Victor Lemus Tlapale izan da zuzendari artistikoa. Emperadores taldea Mexiko Hirikoa da eta ia mariachi guztiak elkartzen diren Garibaldi plazan ospe handia hartu du. Emperadores taldeko musikariek honako instrumentuak jotzen dituzte: sei biolin, hiru tronpeta, arpa bat, gitarra bi, gitarroi bat eta bihuela bat. Adituen iritziz, Emperadores taldeak, zuzenean, Jorge Negrete, Jose Alfredo Jiménez, Agustín Lara eta Javier Solís elkartzen ditu gogora.

Taldeak Hego Amerikan hainbat bira egin ditu, baita AEBetan ere. Hain zuzen, Arrasateraino ekarriko dituen bira hori Europan zehar egiten duten lehenena da.



ARRASATE PRESS

Emperadores mariachi taldea 14 musikaririk osatzen dute. Ekainaren 24an kalejira egingo dute eta gauean Monterronen joko dute.



ARREGI

arte galeria
enmarkazio tailerra

Maalako Errebala 8
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 56 44
arregi.arte@lycos.com

ELISA ESPINA
arte digital erakusketa

ekainak 27tik uztailak 31rarte

TXOSNAK

Musika eta antzerkia nagusi txosnetan

Kondekuan hiru txosna jarriko dituzte; kontzertuak eta antzerki emanaldi bat egongo dira ikusgai

XABIER URZELAI

Aurten ere, joan den urtean moduan jai giroak ez du behera egingo txosnen gunean. Hiru txosna izango dira, eta horrez gain, antzerki emanaldia eta hainbat kontzertu egongo dira.

Guztira hiru txosna egongo dira aurten go San Juanetan: Segik jarriko du bat, Euskal Herrian Euskaraz taldeak eta Arrasateko Errugbi Taldeak, erdibana, jarriko dute beste txosna bat

eta hirugarrena ATECE elkarteak jarriko du, garuneko gaixotasuna dutenei laguntzen dien Gipuzkoako elkarteak. Joan den urtean ere hiru txosna egon ziren, baina hiru txosnetako batean, handienez, bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egon zen, eta aurten ez da horrelako txosnarik izango.

Txosnak gaur, egubakoitza, irekiko dituzte, 18:00etan, eta eguenera arte (hilak 26ra) arratsaldero irekiko dituzte. Eta txosnen gunean egongo da zerekin entretenitu: gaur, 19:30ean, Mac Rea taldeak antzerki emanaldia egingo du. Mac Rea lagun bik osatzen dute. Lagun horietako bat irlan-



ARRASATE PRESS

Aurten ere punta-puntako kontzertuak egongo dira txosnen gunean.

Txosnen guneko egitaraua

EGUBAKOITZA, 20

18:00 Txosnen irekiera.
19:30 Antzerki emanaldia egingo du Mac Rea taldeak.

ASTELEHENA, 23

23:00 Rock kontzertua. (Kontzertua emango duten taldeak oraindik zehaztu barik daude, baina baliteke Iron Maiden taldeak azken diskoa Arrasaten aurkeztea).

MARTITZENA, 24

04:30 Kuleru eta galtzontzilo herri lasterketa. Tira, ikusi egin beharko da norena den barruko arropa

itxurosoena.

EGUAZTENA, 25

17:30 Arrasateko koadrilek *Olinpi-poteoa* egingo dute alde zaharrean, eta, urtero moduan, *Olinpi-poteo* horretako kirol proba batzuk txosnen gunean egingo dituzte.

EGUENA, 26

19:30 Rock kontzertua. (Kontzertua emango duten taldeak oraindik zehaztu barik daude, baina baliteke The Rolling Stones taldeak Bilboko kontzertuaren ostean Arrasaten azken emanaldia egitea).

darra da, eta Euskal Herri-
ra lehenengoz etorri zene-
an aurkitu zueneko parodia
egiten dute. Sarritan,
antzezlanaren baino gehiago,
bakarrizketa egiten du Mac
Rea taldeak. San Juan jaiak
barre eginez hasi gura badi-
tuzue, galdu ezin duzuen
hitzordua duzue txosnen
gunean.

MUSIKA NAGUSI

Aurten ere kontzertu asko
Monterongo parkean izan-
go dira, baina txosnen
gunean ere egongo da zer
entzun.

Oraindik ez dago hitzar-
tuta txosnen gunean zein
taldek joko duten, baina
baliteke ezustekoren bat
edo beste izatea. Alde bate-
tik, baliteke hilaren 13an
Donostian izan ziren Iron
Maiden taldekoak datorren
astelehenean Arrasaten
egotea. Disko berriaren
aurkezpena irailen egite-
ko asmoa zuten, baina
Arrasatera etortzen badira,
hemen egingo dute aur-
kezpena. Eta bestetik, The
Rolling Stones taldeak Bil-
bon jo berri duela aprobe-
txatuta, Arrasaten beste
kontzertu bat emango duen
zurrumurruak daude.
Arrasatekoa, gainera, doa-
koa izango litzateke, eta
txosnen gunean, gainera, ez
dago leku faltarik.

Edozelan ere, talde eza-
gun bi horiek Arrasaten
jotzerik ez badute, inguru-
ko musika taldeen rock-
and-rollaz gozatu ahal izan-
go dugu.

J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte 2

Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU



A R R A S A T E

ERREMENTARI DANTZA

Hamar urte bete ditu Arrasateko dantzak

San Juan bezperan irtengo dira dantzariak Errementari Dantza egiteko, 21:30ean

UBANE MADERA

Hamargarren urtez, errementariak eta haien laguntzaileak dantzan irtengo dira Sanjuanetan. Nafarroa etorbideetik Herriko Plazarainoko bidea egingo dute.

Jose Ramon Vitoriak bultzatutako ekimenak 10 urte beteko ditu aurten. Jaime Bengoa *Gomix* dantzariak honela gogoratzen du dantzaren sorrera: "Jose Ramon Vitoria zegoen orduan Arrasate Musika-len, eta hark zeukan asmoa

azaldu zuen; gero, talde guztiak harremanetan jarri zituen: txistulariak, dantza taldeak, gaitariak, txalapartariak, trikitilariak, alboka jotzaileak, Bertso Eskola eta Arrasate Musika. Asmoa zen denon artean haren ideiarekin zerbait lortzea. Hala, Jose Ramon Vitoriak egin zituen partiturak, erakutsi egin zizkigun eta kontatu egin zigun zein ideia zeukan: Arrasateko historia zela eta ez zela, errementariak herensugea akabatu zuela eta... Ideia horrekin guk egin genuena izan zen haren musikari dantza ipini. Baina ez genuen pausorik eta asmatu; existitzen diren dantze-



ARRASATE PRESS

Arrasateko historian oinarrituta (herensugea eta errementaria) asmatu zuen J.R. Vitoriak Errementari Dantza.

Eguenean, ekainak 26, Soka Dantza

Sanjuanetako azkeneko egunean beste dantza berezi bat ikusteko aukera egongo da, Lore Gazteak taldearen eskutik: **Soka Dantza**. Ekainaren 26an izango da dantza, Herriko Plazan, 19:30ean.

LEHENGOA BERRESKURATZEKO Orain dela lau urte egin zuten aurreneko aldiz Soka Dantza. *Gomix*-ek hala kontatu digu: "Orain dela bost urte dantza emanaldi bat egin genuen hirugarren egunean, Sanjuanetan zerbait egiteko gogoa geneukan eta. Gero, ARRASATE PRESSen irten zen argazki zahar

baten agertzen zen sasoi hartan dantza taldean zebilen mutil baten aitajauna edo osaba-edo Soka Dantzan. Eta pentsatu genuen penagarria zela lehen egiten zen dantza bat gehiago ez egitea, batez ere Soka Dantzaren kasuan, herri dantza izanda. Hala, Bergarako dantza taldearekin harremanetan jarri ginen, eurek San Martzial egunean Soka Dantza egiten dute eta. Eurek lagunduta dantza berreskuratu genuen". Soka Dantza urtero-urtero egiteko asmoarekin berreskuratu zuten, eta ordutik hona halaxe gabiltza.

tatik zatitxoak aukeratu genituen: polka bat, inguruxo bat... Eta guztia musikara egokitu genuen". (...) *Gomix*-ek honakoa gaineratu du: "Vitoriak ideia oso osoa eduki ohi du; adibidez, musikaria da, eta dantzarako asmatutako musikak errementarien kolpeak simbolizatzen ditu (makilekin ematen dituztenak). Kontu horiek guztiak bere burutik datoz".

Hortaz, horietan izan ziren hastapenak. Hortik aurrera, batu zirenen artean dragoia egin zuten, Erraldoi eta Kilikien Konpartsak eurekin batera irtetea erabaki zuen, jantziak egin zituzten... Eta hala estreinatu zuten Errementari Dantza. Sekulako arrakastarekin, gainera; Izan ere, azken hamar urteotan, behintzat, bizi-bizi segitzea lortu dute.


200 LAGUN INGURU

Guztira 200 lagun inguru irtengo dira ekainaren 23an, 21:30ean: 130-40 dantzari kalean (plazan 100 dantzari bakarrik kabitzen dira) gehi beste 40 bat musikari Arrasate Musikalekoak. Zaldibartik irtengo dira eta Herriko Plazan bukatu. Bidean, Seber Altuben geratu eta polka dantzatuko dute. Iturriotz kalean gora egingo dute Rumba tabernaraino. Han atsedentxo egingo dute eta gero, Erdiko kale-tik plazaraino jaitsiko dira. Han ingurutxo eta polka egingo dituzte.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel.: 943 79 48 77 ARRASATE




Edertu

Ile apaindegia • Solariuma
Zutikako eta etzandako solariuma

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE

Juan Manuel Berrueta
ARGAZKILARIA

Iturriotz 24. Tel./Faxa: 943 79 19 71
ARRASATE
e-posta: juanma.bv@euskalnet.net
web orria: www.photo.euskalnet.net



Gozoki denda
Aldizkariak

Otalora Lizentziatua, 2
Tel.: 943 79 69 34

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

KOADRILAK

Koadrilek jaiak indartu gura dituzte

Koadrilen egitaraua, batez ere, astelehenean eta eguaztenean oinarrituko da

IKER BARANDIARAN

Urtero herriko koadrilek esfortzu handia egiten dute San Juanak gehiago girotzeko eta egunean zehar herritarren parte-hartzea indartzeko.

Maiatz hasiera ezkerro herriko sei bat koadrila lanean ibili dira aurtengo San Juanetarako egitaraua prestatzen. 2002ko egitaraua hartu dute oinarri, baina aldaketa txiki batzuk egin dizkiote: esaterako, iaz jaietarako estrei-

natu zuten Koadrila Arteko Pilota Txapelketa kendu egin dute, jende gutxi hartu zuelako parte. Dena dela, txapelketa horrek ez du San Juanetako Koadrila Arteko Txapelketarekin zerikusirik. Txapelketa horretako finalerdiak bihar, zapatua, jokatu dira, eta finala astelehenean izango da.

'OLINPI-POTEOA'

Koadrilek dagoeneko atera dituzte 2003ko San Juanetarako elastikoak. Aurten kolore bi aukeratu ahal izango dira: zuria eta morea. Izan ere, modu horretan, Mondra futbol taldeari omenaldi xumea egin gura izan diote.



ANDER GILLENEA

Koadrila mordo batzen dira Herriko Plazan makala jasotzeko.

Koadrilekin ezin izango zara aspertu

ASTELEHENA 23

12:00: TXUPINAZOA. Herriko Plazan elkartuko dira koadrila guztiak, eta koadriletako partaide batek pregoia esango du.

14:00: Koadrilek bazkaria egingo dute. Jatetxera joateko autobusa jarriko dute.

17:00: MAKALA. Koadrilak Maalan elkartuko dira, eta makala Herriko Plazaraino eramango dute.

18:00: Koadrilek makala jasoko dute Herriko Plazan. Edariak doan izango dituzte.

18:45: TRIKI-POTEOA.

MARTITZENA 24

08:15: TXOKOLATE-JANA. Herriko Plazan.

04:30: Kulero eta Galtzontzilo herri lasterketa.

EGUAZTENA 25

08:15: TXOKOLATE-JANA. Plazan.

14:30: BAZKARIA. Seber Altuben edo Uarkapeko arkupeetan, eguraldiaren arabera.

17:30: 'OLINPI-POTEOA' alde zaharrean zehar, txarangaren laguntzarekin.

Urtero moduan, ekainaren 23an elkartuko dira koadrilak. Bazkaldu egingo dute, eta, behin indarra hartuta, makala eroango dute Maalatik Herriko Plazaraino. Horren ostean, Herriko Plazan makala altxatu egingo dute, eta triki-poteoa egingo dute herriko kaleetan zehar.

Ekainaren 24an eta 25ean, koadrilek txokolate jana emango dute Herriko Plazan. Aukera polita gaur pasatzen egindakoek indarra berreskuratzeko. Horrez gain, 25ean gauean, ordu txikietan (04:30ean), hainbat gaztek kulero eta galtzontzilo lasterketa egingo dute. Iaz ere antolatu zuten, eta ekimenak harrera polita izan zuen.

Koadrilen egunari dagoeneko, ekainaren 25ean txarangak ez du goizean kalejirarik egingo; izan ere, koadrilako partaideen esanetan, goizean ez da ia gazterik ibiltzen kalean. Horregatik, koadrilek txarangakoei eskatu diete antolatutako bazkaria joateko. Hain zuzen ere, bazkaria 14:30ean egingo dute, eta eguraldiaren arabera Seber Altuben edo Uarkapeko arkupeetan izango da. Behin digestioa egin eta gero, 17:30ak aldera herriko gazteek *Olinpi-poteoa* egingo dute alde zaharreko kaleetan zehar. Aurreko urteotan arrakasta handia izan dute joko horiek, eta aurten ere halaxe izatea espero dute.



Estella ortopedia




Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA
Matxiategi 5 • Tel.: 943 76 19 63 • BERGARA

RPS 421/97

Ondo pasa dezazuela denok!

Etxerako laguntza teknikoa



Kirol Ortopedia




Mastektomiak ▶



Neurrira eginiko plantillak.
Oinetakoak ▶







CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



EKIDE S.L

San Andres auzoa 2. 4A pab.

20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 25 43

Faxa: 943 71 21 43

e-mail: ekide@sarenet.es

*San Juan jai
zoriontsuak pasa
ditzazuela opa
dizuegu!*

TELAETXE S.A.

Oihalen neurketatik etxean
ipintzera arte dena gure esku

Fabrikako preziotan

Elgeta bidea,
gasolindegitik
300 metrora
• BERGARA •

Tel.: 943 76 39 40 / 41
Astelchenetik
larunbatera
10:00etatik 13:00etara
eta
16:00etatik 20:00etara
zabalik

- Kortinak
- Kortinoiak
- Estoreak
- Fundak
- Mantelak
- Nordikoak
- Izarak
- Oihalen neguko kolekzio berria ikusgai eta orain **ALFONBRAK**

EUSKAL JAIA

Haur Dantzarien Egunean 400 bat ume etorriko dira

Ibarrekoez gain, Bizkaiko, Arabako, Nafarroako eta Gipuzkoako dantzariak izango dira

Domeka, 22
10:00-19:00

Kalean

Goizean alde zahar-
raren inguruan eta
arratsaldean Herriko
Plazan.

22
domeka

Sanjuanak gerturazten ari diren neurrian, Arrasateko kaleak ume mordoa hartzeko prestatzen ari dira. Izan ere, jaiak baino apur bat lehenago, ohitura den moduan, Haur Dantzarien Eguna ospatuko dute. Arrasateko antolatzaileen asmoa da 400 bat ume batzea Arrasaten. Hala adierazi digu antolatzaileetako batek, Jaime Bengoa *Gomix*-ek.



Goizean kalerik kale ibiliko dira umeak eta arratsaldean alardea egingo dute Herriko Plazan.

ARTXIBOA

esan digu *Gomix*-ek: "Jeneralean lau gune egiten ditugu, eta gero umeak txandakatu egiten dira gune bategatik bestera. Guneak honakoak dira: Arbolapeta, Herriko Plaza, Seber Altube eta, datorren talde kopuruaren arabera, Iturbide egoitza eta inguru hura ere hartzen dugu".

Hori goizean izango da, esan bezala, 13:45ak arte. Ordu horretan, umeak banatu egiten dituzte bazkaltzeko. Eta arratsaldean 17:00etan dute hitzordua. Zaldibarren elkartuko dira. Handik plazara egingo dute kalejira, eta plazan alardea egingo dute talde guztiek batera. Horrez gainera, Debagoien kanpotik etorriko den talde bakoitzak bere herrialdeko dantzaren baten erakustaldia egingo du. Eta horren ostean, talde bakoitza bere herrira joango da. 19:00ak-19:30ak aldean Gurbela taldearen eskutik erromeria izango da Arrasaten.

Ohartxo bat: eguraldi txarra eginez gero, dantza saio guztiak Uarkapen egingo dituzte.

NONDIK

Gomix-ek aurreratu digu gure ibarretik Antzuolako, Soroluzeko eta Aretxabale-tako taldeak eta Arrasateko talde biak izango direla. Ibarretik kanpo, baina, Gipuz-

koatik Lasarteko taldea etorriko da, Bizkaitik Galdekaokoa, Arabatik Gasteizko dantza talde bat edo bi -ahal badute-, eta Nafarroatik Iruñeko dantza talde

bat seguru etorriko dela eta ahaleginduko direla beste bat ekartzen. Gaineratu du Oñatikoak ez direla etorriko han Gorpuzti eguna delako eta Bergarakoak ez dire-


la etorriko azken orduko gaizki-ulertze bategatik.

EGITARAUA

Egitaraua ohikoa da: umeak 10:00etan elkartuko dira

Zaldibarren; handik kalejiran irtengo dira Herriko Plazaraino; eta han hamarretakoa emango diete.

Gero, 11:30etik 13:45era kalerik kale ibiliko direla




izarra

• KOPISTEGIA •

**San Juan jai
zoriontsuak
guztiontzat!**

- Fotokopialak
- Inpresio digitala
- Inprimategi lanak
- Plastifikazioak
- Koadernaketak
- Fax zerbitzuak
- E-mail bidez inprimaketak
- Bulego materiala
- Ezkontza gonbitak
- Txartelak
- Kautxuzko zigiluak

Loramendi 2-behea • 20500 ARRASATE • Tel./faxa: 943 79 21 61 • e-posta: izarra@izarra-kopistegia.com

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Festa zoriontsuak opa dizkizue

DHL Express Bergara - San Juan Erreka 33 - 20570 Bergara
Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

www.guipuzcoana.com

DHL
EXPRESS

ETXEAN NAHI DITUGU!




JON AGIRRE



JOSU URIBETXEBARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT




AMAIA ARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE




JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



ERREFUXIATUAK

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:
Iratz, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Kimetz

IRUDI ZAHARRAK



70eko hamarkadako danborrada

Serio-serio ageri dira, 1970. urte inguruko argazki horretan, danborradako kideak Arrasateko Erdiko kaletik pasatzen. Rafa Fernández dugu danborradaren zuzendari. Urtetan izan da Rafa danbor jotzaileen gidari, eta dagoeneko utzita duen arren, oraindik ere irteten da Sanjuanetan danborra jotzen. Julio Gorroñoitia da Rafaren atzean, ezkerrean, ageri dena, eta eskumakoa, berriz, Heriberto Mendizabal dugu. Rafak kontatu digunez, bere garaian jende nagusiagoak parte hartzen zuen danborradan, eta jai giroan izan arren, seriotasun handiz irteten ziren danborra jotzera. Garai hartan Udalpe elkarteak antolatzen zuen danborrada, eta elkarrean bapo afalduta irteten ziren danborra jotzera. Gaur egun bezala, orduan ere jende ugari irteten zen danborrada ikustera. Argazkia Letonaren artxibotik jaso dugu.



Pilota partidura, dotore

Goitik beheraino zuriz jantzi eta halaxe joan ziren 1991ko argazki horretako protagonistak pilotan jokatzera. Udaletxetik irteten eta Zaldibarko pilotalekura bidean ageri dira umoretsu, txaranga lagun dutela. Arrasateko koadrila parrandazale hark eskupilota partida interesgarria antolatu zuen Gregorio Uranga *Kirru* enpresaburu ospetsuaren zuzendaritzapean. Aurrealdean ageri dira desafioko protagonistak: ezkerretik hasita, gerriko gorriarekin, Reyes *Txikito de Elosu* eta Agustin Beitia ditugu; eta gerriko urdinez, Langaran *Txikito de Beneras* eta Agustin Ibarluzea *Txispas*. Atzealdean ageri direnak honako hauek dira, ezkerretik hasita: Juan Mari Oregi, Durangotik etorritako laguna, Iñaki Olaizola (atzean, biboteduna), Adolfo Arkauz (beste alde-ara begira), J. L. Etxebarria *Porru* (bizarduna) eta Agirrebeña *Zapatero* (koparekin).

Udan dena ikusten da desberdin Udan dena ikusten da gehiago



Zure gorputzarekin gustura sentitu gura baduzu, aukera ezazu zure tratamendu pertsonalizatua

AG Amagara

Erdiko kalea 54

Tel.: 943 79 09 09

Ondo pasau San Juanak!
Irudi pertsonalean adituak gara

ZAHARRAK

80 urtetik gorakoei omenaldia egingo die Udalak

San Juan egunean luntxa izango dute Abaroan eta omenaldia egingo diete

Aspaldiko ohitura da San Juan egunean Arrasateko 80 urtetik gorakoei omenaldia egitea. Horrela egin du Arrasateko Udalak azkeneko urteotan, eta aurten ere ez dio hitzorduari hutsik egingo. Martitzenean izango da hori.

Dagoeneko 80 urtetik gorako arrasatearrek gura izan dutenek eman dute izena udaletxeko idazkaritzan. Hala egin badute, San Juan egunean, ekainaren 24an, Abaroara joan besterik ez dute egin behar. 12:30ean dute hitzordua.

Batez beste 140 bat lagun batu ohi dira omenaldian. Egia esatearren,

herrian 80 urtetik gorako jende asko dago, baina batzuk ez dira halako ospakizunetara joatera animatzen. Urtero, omenaldira joaten diren baino lagun gehiagok ematen dute izena, baina duten adina kontuan hartuta, azken orduan batzuek atzera egin behar izaten dute.

NAGUSIENEI OMENALDIA

San Juan Batailatzaileen elizan meza nagusia entzun ostean, 12:30ean, alkateak, zinegotzi batzuek eta Abaroa elkarteko arduradunek Abaroa elkartera joko dute. Izan ere, erretiratuak luntxa izango dute Abaroako egongelan.



Aurten ere Udalak gizon eta emakumezko nagusienei omenaldi berezia egingo die.

Menu goxoa izango dute: urdaiaspikoa, budina, piper berdeak antxokin, patata-tortilla, legatz solomoak, kroketak eta

pasteltxoak, hain zuzen ere. Edatekorik ere ez da faltako, jakina. Gehienek oso apetitu ona erakusten dute. Ez da harritzekoa,

horrelako jaki goxoak mahai gainean edukita.

Behin gosea aseta, alkateak eta zinegotziek hitzordu horretara joaten diren

Martitzena, 24
12:30ean

Abaroa elkartean

80 urtetik gorakoek luntxa eta omenaldia izango dituzte.

gizon eta emakume nagusienei opari bana emango diete. Esan beharra dago herrian gizon eta emakume nagusiagorik egon badagoela, baina Abaroa elkartera hurreratzen diren bi nagusienei emango dizkiete sariak. Gizonari txapela eta emakumeari, berriz, lore sorta. Hala ere, omenaldi eguna heldu arte ez dute aditzera ematen nortzuk izango diren urteko omenduak.

GAINERAKOENDAKO OPARIAK

Arrasateko nagusiek badakite San Juan jaietako luntxa eta omenaldia urteroko hitzorduak direla, eta, ahal duten neurrian, han izaten dira. Are gehiago, urtero lagun askok ematen dute izena luntx horretara joateko.

Aspaldiko lagunekin kontu-kontari jarduteaz gain, ederto jaten dute, eta batzuk omenaldiarekin hunkitu egiten dira. Horrez gain, Udaleko ordezkariak urtero oparixoren bat ematen diete han batutako guztiei. Izan ere, 80 urtetik gorako herritarrek hori baino gehiago merezi dute.

euya

Iturriotz 21 Tel./Faxa: 943 79 03 84
ARRASATE

Ondo pasau
San Juanak

etxetresna elektrikoak





estilo guztietako lanparak zure esku

ibai-arte

San Juan jai
zoriontsuak izan!

GRUPO **RK UZ** 1950-2003

Zure
etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABAETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA



DANBORRADA

230 lagun inguru izango dira aurtengo danborradan

Urte batzuetan jende faltan egon diren arren, azken urteotan danborrada jendetsua izan da

XABIER URZELAI

Joan den astean umeen danborrada arrakastatsua izan zen, eta astelehenean, 22:00etan, herriko etxeetako hormek dar-dar egingo dute danbor hotsaz.

Astelehenean, San Juan bezperan, jaietako hitzordu garrantzitsuenetako batez gozatu ahal izango dute mondragoetarrek. 22:00etan, Zaldibartik hasita, 230 lagun inguruk danborrak astinduko dituzte. Aurten ere ez da jende faltarik izango. Izan ere, beste urte batzuetan, SUDC elkarteok buruhauste galantak izan dituzte danborrariak lortzeko, herri-tarrak ez ziren-eta animatzen. Azken urteotan, baina, ekitaldia osasuntsu dago, jende askok gustua hartu dio-eta danborradan parte hartzeari.

DURANGOKO BANDAREKIN
Orain arte Eskoriatzako Musika Bandak jo izan du



Joan den urteko danborradan eguraldiak ez zuen lagundu, baina jai giroa izan zen nagusi.

nagusien danborradan, baina aurten eskoriatzarrak ezin dute ekitaldian parte hartu, eta Durangoko Musika Banda izango da Arrasateko danborradan. Seguru, bizkaitarrek ere

Aurten, Eskoriatzako Musika Bandak ezin du danborradan parterik hartu, eta Durangoko Musika Banda izango da

ezin hobeto girotuko dituzte Arrasateko kaleak. Danborrada Zaldibarren hasiko da, 22:00etan. Ibilbidea beste urte batzuetakoa izango da. Nafarroa etorbideetik Laubide plaza-

rako bidea hartuko dute, handik Garibai etorbidera, eta Maalatik Erdiko kalera, eta Herriko Plazan amaituko dute. Iaz zirimiria egin zuen; ea, bada, aurtenguraldiak laguntzen duen.

MAIATZA EZKERO LANEAN

Danborrada egunean gutzia gertu egon dadin, danborradan esku hartuko dutenek maiatza ezker dabilta lanean. Danborra jotzea ez da gaitza, ondo jotzea da kontua, eta horretarako, zortzi entsegu egin dituzte. SUDCeko kide Andoni Alzelaireren esanetan, entseguak behar den moduan joan dira: "Maiatzean hasi ziren entseguak, eta normala den moduan, lehenengo saioetan jendea apur bat galduta zebilen. San Juanetarako, baina, dena gertu egongo da".

Bestalde, joan den zapatuan, Arrasateko 200 neska-mutikok umeen danborradan hartu zuten esku, eta gaztetxoek arrakasta ikusita, seguru nagusia ere punta-puntako danborrada izango dela.

Urriarte

Ondo pasau
San Juan jaixak!

Olarte 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

King's
Ile apaindegia

Zarugalde 23. ARRASATE
Tel.: 943 79 84 88



SARA

MERENDERUE

IZAN GINALAKO IZATEN GARA
ETA IZATEN GARELAKO IZANGO GARA

Eskuak
libre
askoz
merkeago


Oran
30 €
Siemens C55 bat
+ esku libreko kita.



ROUTER
COMUNICACIONES, S.L

Maalako Errebala 8 behea
atzeko aldea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 712 781
Faxa: 943 711 785

Euskaltel eko Bapuzko Orlaia



S. Carrascal, S.L.

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Bestelako armairuak

San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Gipuzkoako etorbidea, 6-1
Tel.: 943 79 01 82
ARRASATE-MONDRAGON

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

MULTIMEDIA-SISTEMA

- 09:00etatik 21:00etara, etengabeko ordutegia
- Mintzapraktika
- Ikasteko ordu mugarik gabe
- 17 urtetik gorakoentzat

2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA


- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

IKASTETXEKO IRAKASGAIEN LAGUNTZA-ESKOLAK

- Matematika, hizkuntza, euskara, ingelesa

uda honetarako

Jai zoriontsuak!!



Donostia-San Sebastián
Zubieta, 26.
Tel.: 943 43 31 02

Vitoria-Gasteiz
Florida, 8A.
Tel.: 945 15 01 55



Arrasate
Araba Hiribidea, 4.
Tel.: 943 71 20 55

Oñati
Olakua, 14.
Tel.: 943 71 60 00



secretaria@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

ALMACENES ARRASATE

650 m² zure zerbitzura merkatuko
marka onenekin:
Fagor, Aspes, Bosch, Philips, Sony...

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ETA SUKALDEAK



Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. **Kooperatibistendako prezio bereziak.**

Doan egingo dizkizugu proiektua eta aurrekontua. Konpromiso barik.

Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3 • Roneo ondoan

IRRATIA

Arrasate Irratiko uhinak jai giroan murgilduta

Arrasate Irratiko mikrofonoak San Juanetako jai giroan, zuzenean, 10:30etik 13:00etara

ARRASATE IRRATIA

Astelehenetik aurrera Arrasate Irratia ere jai giroan murgilduko da. San Juan jaiak direla eta, jaien berri ematen ahaleginduko gara. Piztu goizero herriko irratia.

Mikrofonoak eta grabagailuak gertu ditu Arrasate Irratiak horiek guztiak kalera ateratzeko. Jaiak direla eta, kaleak nagusitasuna hartuko du datorren astelehenetik aurrera, eta kalean gertatuko den guztiaren berri

jasoko duzue entzuleok uhinen bidez. Ekainaren 23an, datorren astelehenean, hasiko ditugu jaien gaineko saioak, 10:30etik 13:00etara. Horretarako, lantalde zabala ibiliko da jaien gaineko informazio guztia batzen.

Astelehena San Juan bezpera izanik, jaietan murgilduz hasiko dugu emanaldia. Salbea, Errementari Dantza, nagusien dantborrada eta San Juan sua izango dira hizpide nagusi. Martitzenean, berriz, entzierroko gorabeherekin hasiko gara eta egun horretan izango diren beste ekintza batzuekin segituko dugu. Eguaztenean, beste



UB ANE MADERA

Zapatuan, Aitor Oskotz teknikari lanetan ibili zen eta Maria Agirre eta Nerea Zubiete, esatari lanetan.

tik, umeak izango dira protagonista, Eguzki Laru etorriko da-eta. Eta bukatzeko, egunean, eguneko kontuak jaso eta jaien gainbe-

giratua eginez bukatuko dugu.

UDAKO SAIOAK

Bestalde, ekainaren 30etik


aurrera udako tarteei egingo diegu leku Arrasate Irratian. Negu partean izan ditugun hainbat tarterri agur esan diegu, eta astelehenetik aurrera aurpegi berriarekin etorriko gara. Eguraldiaz bat eginik, askoz freskoagoak izango diren tartea estreinatuko ditugu. Hori bai, betiko moduan, albisteekin hasiko dugu eguna, 09:00etan.

Datorren astelehenean hasiko ditugu jaien gaineko saioak, 10:30etik 13:00etara

Alkate izendapena zuzenean

Joan den zapatuan Arrasate Irratiak zuzenean eskaini zuen alkatea izendatzeko bilkura berezia. Udaletxeko bilkuran estudioa jarri, eta handik egin zuten berba irratiko esateriek. Maria Agirrek eta Nerea Zubietek jardun zuten han ikusten zuten guztiaren berri ematen. Udaletxeko teknikari lanak, berriz, Aitor Oskotzek egin zituen. Irratiko estudioan beste lagun bi egon ziren: Aitziber Aranburuzabala eta Gaizka Vitoria teknikaria.

11:30ean hasi zen saio berezia, alkate izendapena zelan egingo zen kontatuta, eta 12:00etan zuzenean eskaini genituen han jazotakoak. Behin Inazio Lakuntza alkate izendatuta, Arrasate Irratia izan zen alkate berria lehenengoz elkarrizketatu zuena. PPko Itziar Lamarain ere hurreratu zen irratiko mikrofonoetara iritzia ematera. Beste alderdi batzuetako zinegotziak ezin izan genituen elkarrizketatu; bai, ordea, orain arteko alkate izan den Xabier Zubizarreta.



CANAS - ESTEBAN S.L ERAIKUNTZAK

San Juan jai zoriontsuak
Arrasatear guztioi!

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A 943 77 05 57

ENTZUMEN ZENTRUA

- GAES Otoralora lizentziaduna 18 943 71 27 93

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1. 943 77 14 72

Kiropraktika zentrua

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kalea, 22-3. eskuma. 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37. 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegan ere bai) .. 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 19-1 Ezk 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA Zerkaosteta, 19 behea 943 79 71 90
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde 16- 1.-Esk. 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzezino, 6 943 79 25 98
- MULTIOPTICAS LARRAÑAGA (Optika, Optometria eta kontaktologia) J. Carlos Guerra 1 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPIEDIA Kontzezino, 2 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 659 58 66 89

podologia

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kalea 54, behea eskuma 943 79 97 46

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kalea, 37 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56. 943 79 44 22

TELEBISTA

GOITB ere San Juan jaietan murgilduta

San Juan jaien gaineko saio bereziak egongo dira ikusgai ibarreko telebistan

USOA AGIRRE

Ibarreko telebista ere Sanjuanetan egongo da. GOITBk bertatik bertara emango du Arrasateko jai giroaren berri.

Goiena Telebistaren helburuetako bat da ibarreko herritarrengandik ahalik eta gertuen egotea, eta, horretarako, ibarreko berri emateaz gain, ezinbestekoa da ekintzetan parte hartzea ere. Eta herrietako ekitaldi nagusiak jaiak direnez, GOITB beti ahalegintzen da ibarreko herri guztietako jai nagusietan egoten. Iaz halaxe egin zuen, eta aurtan ere helburu hori du. Bergarako jaietan egon zen Goiena Telebista eta Arra-

sateko Sanjuanen berri ere emango du, gertu-gertutik. Hilaren 26an, San Juan jaien azkeneko egunean, Goiena Telebistak Arrasateko Zaldibar pilotalekua telebista plato bihurtuko du eta han bertan grabatuko du eguerdiko albistegia. Unitate mugikorraz grabatuko dute albistegia, eta 14:30etan eta 20:00etan emitituko dute.

Berrogeita bost minutu inguruko albistegi berezia izango da, eta zati bi izango ditu: lehenengo zatian, egunero egiten den moduan, eguneko albistek eskainiko dituzte, eta bigarren zatia jaien gaineko tartea izango da. Magazinen moduko saioa izango da albistegiaren bigarren zatia, eta gonbidatuak, elkarriketak, erreportajeak eta



Goiena Telebista kalean izango da San Juan jaietan.

beste hainbat bitxikeria egongo dira ikusgai.

Albistegi bereziaren ondoren, 15:30ak aldera, *Jaiak 2003* saio berezia eskainiko dute. Saio horretako protagonistak Kepa Errasti kazetari *lotsagabea*

eta ETBko *Basetxea* lehiaketako kide bi izango dira: Jokin Leniz lekeitiarra eta Iñigo Aizpurua itziartarra. Kepa, Jokin eta Iñigo San Juan jaietako ekitaldi garrantzitsuenetan egongo dira, erreportaje zoroak egi-

ten, eta hirukoteak egingako abentura horien berri emango dute *Jaiak 2003* saio berezian. Bergarako jaietan ere egon ziren Kepa, Jokin eta Iñigo erreportari lanak egiten, eta oso ondo moldatu ziren. Saioak 45 minutu inguru iraungo du, eta hiru kazetari xelebreok ekitaldi berezien eta kaleko giroaren berri emango dute.

San Juan jaietako bes-

Goiena Telebista San Juan jaietan

EGUAZTENA, 25

20:30: SALBEA
Domekan izango den Salbe Solemnea eskainiko dute.

EGUENA, 26

14:30: ALBISTEGIA
Eguerdiko albistegia erreplikatu egingo dute arratsaldean, 20:00etan.
Gero: JAIK 2003
Jaietako saio berezia Kepa Errasti, Jokin Leniz eta Iñigo Aizpuruarekin.

te ekitaldi bi ere grabatzeko asmoa dute Goiena Telebistakoek. San Juan eguneko Salbe Solemnea izango da horietako bat. GOITB sortu aurretik, ATBk ere ematen zuen Sanjuanetako ekitaldi nagusienetakoa den ospakizun hori, eta Goiena Telebistak ere ATBk hasitakoari eusten dio. Martitzenean, San Juan egunean, unitate mugikorraren bidez grabatuko dute ekitaldia eta eguaztenean emitituko dute Goiena Telebistan. Eta, bestalde, hilaren 26an, egunean, Herriko Plazan egongo den umeendako antzerkia grabatzeko asmoa ere badute. Hortzuga taldearen *Klaketa* ikuskizuna egongo da GOITBn ikusgai.

'Jaiak 2003' saio berezia emango dute egunean, Kepa, Jokin eta Iñigoren erreportaje xelebreekin.

HOTEL MONDRAGON

Biteri etorbidea, 16 • ARRASATE
Tel.: 943 71 24 33 • Faxe: 943 71 23 43
Posta-e : hotelmondragon@hotelmondragon.com
www.hotelmondragon.com

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko ekainaren 20a / 69. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Aho batez eta zenbait herritarren protesta artean izendatu zuten Mertxe Mondragon


UBANE MADERA

Ezusteko barik, baina oso giro desatseginean izendatu zuten Mertxe Mondragon datozen lau urteotarako alkate. Aho batez eta eskua jasozko botazioarekin aukeratu zuten alkate berria. Aretoan batu ziren zenbait herritar, berriz, protestaka ibili ziren.

Zailtasunekin hasi zuten osoko bilkura. Txotxa sartu zuten udaltxeko atearren sarrailan, eta ezin izan zuten hura zabaldu. Hala, esku-eskailera hartu, balkoi batera igo, eta leihoaren kristala apurtuta sartu ziren barrura. Azkenean zabaldu zuten atea eta plazan zegoen jende guztia bilkuren aretora igo zen. Izan ere, eta nahiz eta 09:00ak izan, jende dezente elkartu zen batzarrean parte hartzeko, gehienak, Hamalau plataformaren ingurukoak.

Hain justu ere, batzarra hasi baino lehen, plataformako hiru kide udalbatzarraren mahaian eseri ziren; euren esanetan, herritarrek euren emandako 300 botoei dagozkien hiru lekuetan.

Hala, legeak agindutakoari jarraituz, zinegotzi zaharrenak eta



Hamalau plataformako kideak euren ustez euren dagozkien lekuetan eseri ziren.

gazteenak eratu zuten Adin-Mahaia, eta banan-banan gainerakoei galdetu zieten ea zinegotzi karguaren zina egiten ote zuten, "euren ohoreagatik, eta Konstitu-

zioa eta Erregea errespetatuz". Zina egin zuten guztiek, baina Konstituzioari eta Erregeari uko eginda. Gero, Mertxe Mondragon alkate aukeratu zuten, aho batez.

Hori bai, hori guztiori tentsio giroan gertatu zen; izan ere, aretoan zeuden zenbait herritarrek euren ustez Hamalau plataformari dagozkion karguak hutsik uztea

Gestora eratzeko eta berba egiteko eskaera eta EAJ-EAkoen kontrako irainak entzun ziren

eskatu zieten EAJ-EAko zinegotzietei; baita udalbatza antolatu beharrean, gestora antolatzea ere. Berba egiteko eskaera etengabe entzun zen, baita koalizioako kideak lapurrak zirela eta antzerakoak ere.

Eta eztabaidak eta zenbait herritarren eta zinegotzien arteko deiadarrek batzarra bukatu ostean segitu zuten, kalean.

Mertxe Mondragon alkateak adierazi zuen gestora eratzeko eta antzerako eskaeretan ez direla sartuko. Helburua Udala eratzea zela; hori egin dutela, eta orain batzordeak eratuko dituztela, horien bitartez lan egiteko.

Amaia Aspek, berriz, esan zuen tristea zela gestora eratu nahi ez izatea, Aramaion posible delako halako zerbait egitea. Eta, aurrera begira, lana uzteko asmorik ez dutela gaineratu zuen.

HERRITARREN HITZA / Rosa Mondragon • Kazetaria

Opor usaina

Azken asteari gainbegiratu egiten badiogu, badira bati eta besteari burukomina eragin dion gai ugari. Besteak beste, pasa den zapatuko udal eraketa eta toki askotan gertatutakoak, domekan Realak jokatu eta galdutako partidua, gazteek egin duten selektibitatea eta emaitzak... Eta burukominez gabiltzanez, ezin ahaztu azkenaldian jasaten gabiltzan hotz-bero altuek eragindakoak.

Alabaina, eskuetan duzun *Goienkaria* berezia da eta opor usaina dakarkigu gure artera, Arrasateko Sanjuanak iragartzen dizkigu. Jaiek, gainera, seme-alaben ikasurte amaiera iragartzen digute eta gurasooi

iraila bitarteko bi hilabete hauetan euren agenda antolatzeke arduratzen zaigu. Gehienok abuztuan oporrak izango ditugunez, uztailean, lanean jarraituko dugun bitartean, seme-alabak non, zeinekin eta zertan izango diren antolatzek nahiko burukomina emango digu.

Ikasurtea bukatu berri dugun honetan, azterketa eta balantzea egiteko ordua ere heldu zaigu, ez gure seme-alabei



"Udalekueetan ederki asko pasatuko dute"

jakiten nola jokatu: merezitako oporrez gozatu dezaten nahi dugu, eta baita ikasurtean zehar ikasitako erreparatu eta

dagokiona bakarrik, baizik eta guri, guraso bezala, dagokiguna ere bai. Egia esan, klaseek dirauten bitartean guraso gehienok nahiko lasai bizitzen garena iruditzen zait; "beharbada gehiegi" pentsatuko du norbaitek. Baina orain, opor garaia heltzen denean, ez dugu

gogoratu ere. Baina nola? Liburutegietan badira adinaren arabeko ariketa liburuak, baina egokiak ote? Ikasurtean ikasitakoari egokitutako ariketak ote dira?

Kontu horiek alde batera utzita, oporrak disfrutatzeke eta gozatzeko diren heinean, uztailean, han-hemenka antolatzen diren udalekueetan ederki asko pasatuko dute txikienek; beste batzuk, ikasurtean zerbait aprobatu gabe utzi dutenek, klaseetan jarraituko dute, eta beste askok, beharbada atzerrira joan eta beste herrialde eta hizkuntza ezagutzeko aprobetxatuko dute.

LABUR

Iker Agirre Eskolarteko Txapelketan

Bihar, zapatua, Euskal Herriko Eskola Arteko XV. Bertsolari Txapelketa jokatu dute Mungia pilotalekuan. Maila bi egongo dira: txikiena eta handiena. Hala, handien mailan Iker Agirre aramaiarrak hartuko du parte. Ikerrek agurreko bertsoa egin beharko du eta gero, ofizioko saioa. Hor egindakoaren arabera 12 lagunetik sei aukeratuko dituzte (gutxiago badira, lau), eta horiek kartzelako lana eta bukaerako agurra egin beharko dituzte. Zorté on, Iker!

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	


GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: Izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

GIZARTEA

Interneten ibiltzen ikasteko bidea, KZGunea, inauguratu dute kultura etxean

Zortzi ordenagailu eta Internet-rako konexioa. Horrez gainera, ordenagailuetan eta Interneten ibiltzeko ikastaroak. Hori guztiori eskaintzen du herrian inauguratu berri duten KZGunea. Joan den egunean izan zen ekitaldia. Han egon ziren, besteak beste, Iñaki Nafarrate alkate ohia, Mertxe Mondragon alkate berria eta Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat. Azken hark esandakoaren arabera, gaur egun Interneten ibiltzea sasoi baten irakurtzen eta idazten jakitea moduan da; Interneten ibiltzen ez dakiena atzean geratzen dela adierazi zuen, eta gainerakoek baino aukera gutxiago dituela. Horren harira, esan zuen KZGunea eta holako lekuak, batez ere, pertsona helduendako pentsatutakoak direla; izan ere, gazteek euren kabuz edo eskolen bitartez ikasten dute Internet erabiltzen. Hala, gaineratu zuen 20 orduko ikastaroarekin nahikoa izaten dela gutxieneko ezagutza lortzeko, eta gura duenak 10 orduko ikastaro errazagoa ere baduela eskura. Oraingoan, Eider Etxebarria izango da KZGuneako monitorea.



LABUR

Zuiako Koadrilako logotipoen erakusketa

Zuiako Koadrilak koadrilaren beraren logotipoa egiteko lehiaketa antolatu zuen orain dela gutxi. Bada, orain, gaur hasi eta domekara bitartean, lehiaketarako aurkeztu zituzten logotipoen erakusketa egingo dute. Eta, bestetan moduan, erakusketa Sastiñan izango da: hain zuzen ere, barikuan, 18:30etik 20:30era, eta zapatuan eta domekan, berriz, eguerdian eta iluntzean (18:30etik 19:30era) zabalduko dute.

Iker Agirre txapeldunorde eskola artekoan

Iker Agirre aramaiarra txapeldunorde izan zen Arabako VIII. Eskola Arteko Bertsolari Txapelketan. Gazteen mailan jokatu zuen Ikerrek, 14 eta 18 urte artekoekin. Ane Zelaia gasteiztarak irabazi zuen. Iker Agirrez gainera, Gillen Agirre, Idoia Beitia, Olatz Ezpeleta eta Txomin Elortza aramaiarrek ere hartu zuten parte lehiaketan.

**SAN JUAN JAIAK
GERTU-GERTUTIK**

Ekainak 26, eguena
20:45ean eta 22:45ean

Ekainak 27, egubakoitza
15:00etan eta 16:30ean



Ikusiko duzu!



ERRETRATUZAHARRA

Joan den mende erdiko
San Juan bezpera

Sanjuanetan atzera eginez gero, konturatu-ko gara denborak izugarri aldatzen diren arren, ohitura askok bere horretan dirautela. Hara bestela ondoko argazkia. San Juan bezperakoa da, Salbearen egunekoa. Sasoi hartan, gaur egun moduan, udal korporazioak eramaten zuen Juan zaindaria, udaletxetik parrokiara, eta alderantziz. Honakoak agertzen dira argazkian: aurrean, ezkerrean Vicente Sagasta eta eskuman Joakin Etxebarria; atzean, Ignacio Sainz dago eskuman eta ezkerrean, burua bakarrik ikusten zaiona, Jauregibarria da. Arrasateko bandera eramaten Agustin Azkoaga. Eta atze-atzean, gorbatadun beste gizonezkoa alkatea da: Julio Otadui. Bestalde,

horiekin doan dantzaria Norberto Mondragon da, eta ezkerrean, jende artean garbien ikusten den pertsona (beltzez dagoena), Abasolo da.

1958-59 urteko argazkia da. Udaletxeko balkoian Espainiako bandera dago alderik alde. Sasoi hartan ez zegoen hauteskunderik. Tertzio izeneko hiru taldetan banatuta zeuden zinegotziak: Ordezkaritza Familiarraren tertzioa, Ordezkaritza Sindikalaren Tertzioa eta Jarduera Ekonomiko eta Kulturalen Tertzioa. Bakoitzetik lau lagun aukeratzeko zituzten, eta alkatea izendatzen zuten. Horiek gobernatzen zuten.

Argazkia: Udal artxiboa
Informazioa: Udal artxiboa
Urtea: 1958-59



Arrasate Irratiko mikrofonoak San Juanetako jai giroan zuzenean

*Egunero,
10:30etik 13:00etara*

FM107.7




**ARRASATE
IRRATIA**



Ehune

Apainketa



*Etxe txukuna
txoko kuttuna*

Garibai, 8

Tel: 943 77 11 48

ARRASATE

Opel Meriva berria



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

%100 Meriva | %100 malgua



%96 Meriva

Konturatu zara malgua izanda etekin handiagoa ateratzen diozula bizitzari? Izan ere, horrela askatasun handiagoa daukazu. Bost, lau, hiru edo bi eserlekuren artean aukeratu gura duzu? Eserleku guztiak etzangarriak izatea gura duzu? Horiek aurrerantz eta atzerantz eraman ahal izatea gura duzu? Baita aldeetarantz ere? FlexSpace sistemak milaka aukera eskaintzen dizkizu. Zuretako egin dugu. Opel Meriva berria da.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

www.giauto.es